

JAINKOA
ETA GIZAKIA
EUSKARAREN
OROITZAN

FELIX ZUBIAGA

© Felix Zubiaga Legarreta
Azaleko diseinua: Felix Zubiaga Legarreta
Azaleko irudia: Felix Zubiaga Legarreta

ISBN: 84-931426-2-X
Legezko Gordailua: BI-011-01
Aita Pasiotarrak, San Migel auzoa 2
Tel.: 94 673 04 86
48290 EUBA-ZORNOTZA (Bizkaia)
Tailer Grafikoak: R.G.M.

JAINKOA ETA GIZAKIA
EUSKARAREN OROITZAN

FELIX ZUBIAGA

AURKIBIDEA

SARRERA.....	9
I. GIZA JAINKOZALEA.....	12
1.1. Euskal teologia eta antropologia.....	13
1.2. Giza jainkozalearen pentsamoldea.....	15
1.3. Sinboloa eta pedagogia.....	16
1.4. Mitoa eta arketipoak.....	18
1.5. Errittoa eta hizkuntzaren magia.....	21
1.6. Eskararen oroitza eta mitoazterketa.....	23
1.7. Toki sagaratuaren izenak.....	26
1.8. Sinonimoen lekukotasuna.....	28
1.9. Etnografiaren lekukotasuna.....	29
1.10. Jakituriaren aitorra.....	31
1.11. Gramatikaren aitorra.....	32
1.12. Arketipoen zazpikhun.....	34
II. JAINKO ETA GIZA EREDUEN MITOLOGIA.....	35
2.1. AN jainkoaren naza eta mitologia.....	36
2.2. UTU jainkoaren sustraia eta mitologia.....	38
2.3. RA jainkoaren erroa eta mitologia.....	40
2.4. ILU jainkoaren leinua eta mitologia.....	41
2.5. KA giza "genus"(g) eta mitologia.....	43
2.6. BA giza belauna eta mitologia.....	45
2.7. SHE giza jatorria eta mitologia.....	46
ONDORENA.....	48
III. MENDI SANTUTEGIAK EREDUEN ARABERA.....	49
3.1. Mendi santutegiak AN ereduaren arabera.....	49
3.2. Mendi santutegiak UTU ereduaren arabera.....	50
3.3. Mendi santutegiak RA ereduaren arabera.....	52
3.4. Mendi santutegiak ILU ereduaren arabera.....	53

3.5. Mendi santutegiak KA ereduaren arabera.....	54
3.6. Mendi santutegiak BA ereduaren arabera.....	55
3.7. Mendi santutegiak SHE ereduaren arabera.....	56
ONDORENA.....	58
IV. SINBOLO-ERRITOAK EREDUEN ARABERA.....	59
4.1. Sinbolo eta erritoak AN ereduaren arabera.....	59
4.2. Sinbolo eta erritoak UTU ereduaren arabera.....	62
4.3. Sinbolo eta erritoak RA ereduaren arabera.....	66
4.4. Sinbolo eta erritoak ILU ereduaren arabera.....	70
4.5. Sinbolo eta erritoak KA ereduaren arabera.....	72
4.6. Sinbolo eta erritoak BA ereduaren arabera.....	76
4.7. Sinbolo eta erritoak SHE ereduaren arabera.....	79
ONDORENA.....	84
V. EUSKAL ETNOGRAFIA ARKETIPOEN ARAUZ.....	85
5.1. Euskal etnografia AN arketipoaren arauz.....	85
5.2. Euskal etnografia UTU arketipoaren arauz.....	91
5.3. Euskal etnografia RA arketipoaren arauz.....	96
5.4. Euskal etnografia ILU arketipoaren arauz.....	99
5.5. Euskal etnografia KA arketipoaren arauz.....	102
5.6. Euskal etnografia BA arketipoaren arauz.....	104
5.7. Euskal etnografia SHE arketipoaren arauz.....	108
ONDORENA.....	112
VI. TEOLOGIA EUSKARAREN OROITZAN.....	113
6.1. Euskara eta Jainko oroitza AN ereduaren arabera.....	113
6.2. Euskara eta Jainko oroitza UTU ereduaren arabera.....	119
6.3. Euskara eta Jainko oroitza RA ereduaren arabera.....	123
6.4. Euskara eta Jainko oroitza ILU ereduaren arabera.....	128
6.5. Euskara eta Jainko oroitza KA ereduaren arabera.....	130
6.6. Euskara eta Jainko oroitza BA ereduaren arabera.....	134
6.7. Euskara eta Jainko oroitza SHE ereduaren arabera.....	138
ONDORENA.....	142

VII. EUSKARAREN JAKITEA EREDUEN ARABERA.....	143
7.1. Euskararen jakinduria AN arketipoaren arabera.....	143
7.2. Euskararen jakinduria UTU arketipoaren arabera.....	146
7.3. Euskararen jakinduria RA arketipoaren arabera.....	149
7.4. Euskararen jakinduria ILU arketipoaren arabera.....	151
7.5. Euskararen jakinduria KA arketipoaren arabera.....	152
7.6. Euskararen jakinduria BA arketipoaren arabera.....	155
7.7. Euskararen jakinduria SHE arketipoaren arabera.....	157
ONDORENA.....	161
VIII. EUSKAL GRAMATIKA ARKETIPOEN ARAUZ.....	162
8.1. Euskal gramatika AN arketipoaren arabera.....	162
8.2. Euskal gramatika UTU arketipoaren arabera.....	165
8.3. Euskal gramatika RA arketipoaren arabera.....	168
8.4. Euskal gramatika ILU arketipoaren arabera.....	169
8.5. Euskal gramatika KA arketipoaren arabera.....	172
8.6. Euskal gramatika BA arketipoaren arabera.....	174
8.7. Euskal gramatika SHE arketipoaren arabera.....	177
ONDORENA.....	180
ONDORENAK.....	181
BIBLIOGRAFÍA.....	184

ESKEMAK

1 ⁿ eskema: Oihuzkoak jainko arketipoen arabera.....	17
2 ⁿ eskema: Oihuzkoak zazpi arketipoen arabera.....	19
3 ⁿ eskema: Aurrizki-preposizioak arketipoen arabera.....	27
4 ⁿ eskema: Atzizkiak arketipoen arabera.....	28
5 ⁿ eskema: Konparaketa ereduak arketipoen arabera.....	61
6 ⁿ eskema: Onomastika iruzkina Job 38,28-30.....	65
7 ⁿ eskema: Giza=homine ereduaren mitoazterketa.....	75
8 ⁿ eskema: Une, aldi, zenbat, nor arketipoen arabera.....	80
9 ⁿ eskema: Errito harremanetarako adizkerak.....	81
10 ⁿ eskema: Maite onomastika: Etxepare versus Kantika.....	116
11 ⁿ eskema: Adizkeren mito azterketa Is 53,4 a,b.....	122
12 ⁿ eskema: Ra ereduko mitoazterketa Mt 17,2.....	126
13 ⁿ eskema: Via/bide, vita/bizia, veritas mito azterketa.....	135
14 ⁿ eskema: Jakinduriatzko berdinketak/bereizketak.....	144

MITOGRAMAK eta ARKEOLOGIA

1 ⁿ irudi: AN jainkoaren sendia.....	51
2 ⁿ irudi: Ur urenak eta ur barrenak.....	67
3 ⁿ irudi: Ra jainkoaren eguneroko osterak.....	69
4 ⁿ irudi: Esagila, Zikurat, tenploak.....	139
5 ⁿ irudi: Saqqara, piramideak.....	141

SIGLA BATZUREN IRAKURKETA

(s) sumeriera, (a) akadiera, (u) ugaritikoa, (e) egipziera, (ara) arameera, (h) hebraiera, (arb) arabea, (g) grekoa, (l) latina, (f) frantsesa, (al) alemana, (i) inglesa, (it) italianoa, (ca) katalana, (ga) gailegoa.

SARRERA

Jainkoa eta gizakia, aztergai bezala, elkarrekin etortea legezkoa da. Ezin daiteke asmatu teologiarik antropologiarik gabe, edo bestelaz, gizakia den arazoa ezin daiteke azaldu Jainkorik gabe. Hagatik erlijioen historia giza jainkozalearen historia da. Bestetik da Jainkoa eta gizakia diren helburu biok elkarkide eta elkarren harremanetan etortea euskararen oroitzan, azterketa honen izenburuan agertzen denez, teologia eta antropologia linguistikaz lotzen direla, euskararen oroitzarekin alegia .

Hizkuntza eta antropologia elkarri begira dagozan zientziak dira, hala ere, ez dira bata besteagandik ate ulertzekoak, elkarrenak dira eta elkarren funtsa adierazten datoz elkarkide. Jakingai ideiak dira hagatik eta azterketa askoren ardurapekoak biak ere, bai eta hizkuntzarenak, euskara bezala, ahozko kulturaren adierazpide eta gizarte historiko eta kultura baten lekuko den aldetik.

Ahoz ahozko hizkuntzetan euskara eta haren hitz bakoitza euskal teologia eta antropologiaren lekuko dira. Euskara *incosciente colectivo* "talde ohargabea" delakoa baino zerbait gehiago da, euskara hako ohargabe izatearen eta ohargabe bizi diren gizarte askoren esnarri bizkorra bai-da.

Euskara bezalako hizkuntza testoen testoa eta agirien agiria dela frogatu beharko da; areago, hizkuntzaren egituretan jainkoen eta gizaki beraren oroitzak ezeze, bien arteko itunbena dagoela. "Sinistu hizkuntzari, ez dago bera baino lekuko fidagarriagorik" esaten zuan M. Müller erlijioen azterlariak. Hizkuntzak, bestalde, ez dira gure asabek euren jainkoekin hitz egiteko erabilten zuten tresna baino, autore beraren arabera. Gure asabak hako *homo religiosus* giza jainkozalearen kideko ziran. Haiek jainkoekin hitz egiteko asmatu zuten hizkuntzak jainkoon oroitzak bide du hitzen egiturari eta durundian, esaldi bakoitzaren imintsioan. Otoi bat, ez birao bat, ez da esaten imintsio barik, hitza bizia denean. Beste erabatera esanda, euskaldunek aldean daroe oroi

tzon suspertzailea. Akordatzea baino ez dute.

Beste kultura batzuk liburuan idatzi zuten gizakien eta jainkoen arteko ituna Sumerian, Egipton edo Israelen. Behin herriko historia sakratua liburuan idatziaz gero, irakurri eta gorde zegikeen taula edo bilduma preziatua. Euskaldunek, dizka gogorrean bezala, soina den lurrezko ontzian gordetzen zuten artean aurretikoen mezua eta, soina lotan dagolarik ere, itxarrrik bizi zuan euskarak itunaren oroitza, sua supazterreko txingarretan lez.

Zer egiten zuten antxinako euskaldunek, libururik ezean, belaunez belaun, asaben gogoangarriak ondorengoei egozteko? Ze liturgizun, otoi, esakun, hiztegi, errepika edo kantu erabilten zuten, zaharren goraintzia urteoro berriztuz, ezjakinak eskolatzeko? Nola ebaiten zuten hitza erritoetako edo herrigintzako batzarretan? Zoli edo ozen ahozkatzen zutelarik ere, hitz bakoitza halako imusinoz xedatuko zuten, hitzaren indarra aitortuko berere eta "berbako gizaki" izatera oldartuko. Hitzak, berbak, ekintzaren balioa zeukan, "agindua sor da" edo "berbako gizona" esaten denetan bezala. Batzarburuaren otoiak, edozein batzarkideren errepikak edo hiruzkinak argitu bide zuan jainkoekiko errittoa eta hitzak, emaneko berbak, zehaztatzen zuan gizarte harremonen legea. Hitza gorde egin behar zan, galdetu, aginduz oroitu behar zan, oroitzak biziz, oroitzapena sakondu behar zuten erritook ospatuz, eman-hitza bete ahal izateko.

Liburudun herri zahar asko aihenadu egin ziran, baina, eskerak eurek utzi zizkiguten idazkizunei, jakin ahal izan dugu, umea amazalea den bestean, gizakia jainkozalea izan zena. Euskararen barne-sena haren pentsamoldearekin bat ete datorren aztertu behar da, ots, giza jainkozalearen arketipoak euskararen arketipoak eurak ete diren eta harrigarria izango da bere erantzuna, uste dugunez, erantzunik izatekotan.

Halako kultura unean euskarak jainkoekiko ituna gordetzea eta, beraz, euskaldunen historia sakratua bera dela esatea bidezko izan daiteke teorian, baina azaldu egin beharko digu, sinisga-

ri izan daiten. Non dira, hasteko, jainko hoi en izenak edo haiekin harremanik izan zuten gizaki gurenenak? Zer erabagi zuten? Nongo mitoetan azaltzen dira? Bai, hako *homo religiosus* izan zen, giza jainkozalea giza historikoa da, euskara bera ere historikoa den bezala, baina bata eta bestea historiaren argiunetik ate doaz antxinatean alde batetik eta geure garaiotarainoko argia gorde izan dute bestetik.

Euskara dugu giza euskal jainkozalearen teologia eta antropologia aztertze ko metodori onena, nahiz eta euskararen hotsek armonikide asko idoro ditzaketen beste kulturen mitologian eta hizkuntzen soinutan. Euskarari galdetu behar zaio eta giza jainkozaleak asmatu-hizkuntzari bezala, galdetu ere. Zelan oratzen zituan bulkoak? Non oinarritzen zuan garaunetako pentsamendua? Nolatan mintsatzen zan gero ahozko otsak izadikoez egoki etor zitezten? Mintzoa sortze ko, zentzunez oraturiko sinboloez baliatzen zan eta halatan zentzunez ezin atzemanak ere aipatze ko gai zan. Imintsioa mintzoaren bidelagun eta maiz aurrelari den bezala, hala zan sinbola giza pentzamentuaren gidari. Sinbolo hoi en izenak galdetuko ditugu mitoen kondairetan. Sinbolo hoi en izenak, ausaz, antxinako Sortalde Hurbileko mitoe kin zuba egingo digute. Euskara dugu lagun, jarraitu euskarari, euskaldunen itun zaharra argitze ko, ez bai-dago, bera baino, beste agiri sinistagarriagori k. Areago, esan genezake Euskal Historia Sakratua bilduma bitan emana dagola:bata Euskal Hiztegi bizian eta bestea, haren parekide den Onomastiken Hiztegi Orokorrean. Mitoaztertuz, batean eta bestean irakurtea baino ez dago¹.

1 Azterketa honen oinarriak *Vascuence y mitoanálisis* tesian dagerz ugariego, sakondu nahi duenarentat. Hemen, ostera, edukinak nabaritzen ditugu, ots, Jainkoa eta gizakia arazooz arduratzen direnentzat bereberki.

I. GIZA JAINKOZALEA

“Giza jainkozaleak”, ikastunek aipatu-*homo religiosus* delakoak, batean elkartzen ditu arazoaren mutur biak: gizakia eta Jainkoa. Mutur bata beregan du gizakiak eta bestea, sinboloa bera bezala, eliptika baten antzera urtikatzen da, itzuleran galdetzen zena ekar dezan berekin. Beste poloan dagoen Harek agian, izadiko harrigarrietan ager ohi diren ikuskizunetan, harartekoak bidaltzen dizkio, giza jainkozaleari, ots, orzargian, ostarkuaren margoetan, trumoiaren orruan, edo ittoitu ainean den eguzkierrainuetan. Giza jainkozaleak jainko-agerpenak zekusan mandatariongan. Berari deitu eta beragaz hitz egin nahi zuan, batean poz eta goralpenezko daldarak ahozkatzeko eta bestean samin eskergak eta arrenak mindurikatzeko. Izena ezarri zion zeruari, eguzkiari, izenik soilenak, berezienak, konsonante bakarrekoak, eurak aitatzeko bildur-edo bailitzan: AN^(s) inotson zeruari, UTU^(s) iduzkiari Sumerian edo RA^(e) Egipton, ILU/EL^(u) Ugariten ez zeru ez eguzki, ez inon eta danean dagoen jainkoari. Horrek dira M. Mülleren hako “nonima sunt numina=izenak jainkoak dira”.

Giza jainkozaleak legezko harremanak izan nahi zituan, batak hitz egiten zuenero, besteak frekuentzia berean erantzun ahal zezan. Mendi santutegiak oraindino indarrean egozela, tenploak eraiki zituan lautadan, tenploa izango da jainko eta gizakiaren arteko topaketa gunea. Baina ze izen emango dio gizakiak bere buruari, jainkoekin elkarrizketan hasteko edo baldin Jainkoak “zelan dozu izena” itaunduko balio? (Has 32,28). Ze toki hartuko du tenploan elkarrizketara deituak? Zutik ala belauniko egon beharko ote du? Errito arauak irakasten du ze toki edo jasadagokion bakoitzari. Arau berak erabagiko, aipatu-jainko sinboloen artean eta giza konplexua: korpitza, barne/baita eta jainkoengandik erritoz lortu-izate berria, Ka, Ba, She sinboloez iragarten direnen artean (eta hemen “nomine est homine=izena gizakia da” esan beharko) dagoken begiramena. Nola lotu giza izenok

jainko izenekin hitz berean edo harekiko elkarrizketan? Horra gakoa: erritoetan lez, nor bakoitzak dagokion tokia hartu behar du, hitzak dinoena, hutsean gelditu gabe, indarrean egon daiten, errito-legea lege daino, hitza hitz delako.

Historian agertzen dena sikologiak berak egiztatzen du: gizabidezko dela, alegia, adimenez eta bihotzez Jainkoagan sinistea, areago, giza jainkozaleak izadian dakusan sinboloen iraupena eta jainkoen ilezkortasuna nahi duela beretzat. Hitz baten esanda, jainkoen sendiagaz harremanak izan eta ezkondu nahi duela. Azterketa onen bideetan sartu ahal izateko, giza jainkozalearen pentsamoldea ezagutu eta barneratu behar da aurretiaz.

1.1. Euskal teologia eta antropologia

Kristau izateko euskal ganora bat ba dagoke, enpresari edo politikari izateko ere ba dagoenez gero. Zer dela-ta arduratzen da euskalduna hizkuntza minorizatuen bizi-ahaleginaz, adibidez, edo zergatik izan nahi du herri zapalduen askatasun deiadar edo hirugarren munduko herrien suspertzaila? Bere soinean nabaritu duen bidegabekeriatik askatu nahi luke lagunurkoa eta hatarako ahaleginak egin nahi lituzke besteen onerako. Bere gizartean inutu dituen asmoei bide eman nahi die bezteengan ere. Hala egiten dute fededunek misioa iragarrean, hala enpresariak nazioarteko ekoizpenetan dirua eralgitzean, hala politikariak euren ideologiazko ekintzetan, baina batak eta besteak euskal ganora berezia adierazten dute arlo bakoitzean, herri bezala txikia izanik ere, ain orokor agertzen dela bere asmo eta ekintzetan.

J. Daniélou teologoak "pagano" kutsua egozten dio Jainko iragarrien aurretik gizakiagan, giza jainkoazaleagan, dagoen sinistekera eta kulturari¹. "Paganoa" da, beraz, jatorrizko gizakiak antxinatik jainkoez oreto duen mezu mordoa. Aipatu autoreak beragan ekusan, ain zuzen, bere aurretikoek zirenen hako galiar paganoen ondakina. "Ni inutu ninduen kulturaren paganotasunak,

1 VIDAL, J., "DANIÉLOU", DR, o.c., p. 406-410

nire jainkozaletasuna adierazten du eta jasta berezia egotzen dio nire kristau izateari". Halaber indiar, txinar, afrikar edo judu kristau izate bereziak dagozela onartzen du. Judu bat, adibidez, nola izan daiteke kristau, Itun Zaharreko jainko-eskola bereziki sakondu ez badu? Itun Zaharra ez ote da Itun Berria onargarria egiten duen Jainko pedagogia? Eta Israel herriagaz eginiko entsegua beste kulturekin ere egin bide zuan Jainkoak. Edoaldi bereko euskaldunak ez ote zuten izan eskolaurrekorik edo jainko esperientzirik bere orduan Kristoren mezuari erantzun ahal izateko? Izan ere, lege-agintzariak harrian idatzi zituen herriari, ala agintzari beretsuak idatzi gabeko oroitzan, ots, hizkuntza beraren edukinetan gorde zituen herriari egin ete zitzaion errazago Kristoren Barriona onartzea, hau da, juduari ala euskaldunari? Pedagogia zaharra letrari lar atxikia dagoenean, idazkia eragozpen izan daiteke (2Kor 3,6) eta mezu berria onartzea zailago. Hitzaren sinboloa espirituari atxikiagoa baldin badago, ostera, Jainko mezua igartea eta onartzea errazago. Giza jainkozaleak Kristo bere mitoetako galderei eta eskakizunei erantzuten etorretz jakin nahi zuan, ea bera zen Mesias askatzailea (Mt 11,3).

Kristo, Lege Zaharra kentzera barik, betetzera etorri zenez, kristautasuna ere ez zan etorri gizakiagan jainko zaharregazkoa arras garbitzera, harreman haien funtsa nabariagotuz, giza misterioa eta Jainko misterioa sakonean azaltzera baino.

Giza jainkozalea aztertu duten erlijio ikertzaileek eta sikologistek bat datoz horretan, eta areago, ahozko kultura duten herrien lekukotasuna bereziagotzat ematen du M. Eliadek, oroitza ardurea liburuan entzi dutenena baino. Euskal sinistedunak, kristau edo kristau ez denak, bere aitorrak egin ditu eta bere ekintzez azaldu du Jainko esperientzia. Hemen ostera, euskaldunaren ordeztu eta euskaldunekin batera, euskerak duen Jainko eta giza oroitza dugu aztergai. Euskaldun jainkozaleak euskararen utzi zituen jainko santzu eta giza aztarren hoiek dira euskal teologiaren eta antropologiaren agiri eta xegun bereziak. San Paulok atena-

tarren jainkozaletasuna gorai patzen du (Ek 17,22). Antxinako euskalduna ere kristaugai heldua zenetz jakin nahi dugu. Euskaldun jainkozale zenagan sakontzeko, ostera, *homo religiosus* den giza jainkozalea ikertzea beharrezkoa dugu.

1.2. Giza jainkozalearen pentsamoldea.

Giza jainkozaleak sinboloez hitz egiten zuan, hagatik halakoari *homo symbolicus* ere ba deritso, J. Ries², erlegioen historian ulertua den autorearen arabera. Sinboloa du bere jainko agerpenen hizkuntza. Sinboloen bidez azaltzen ditu, berez ezinikusi diren errealitateak, giza bizitzaren gainetik susmo dituen indarrak, bera eta ingurua ez den beste Haren nortasuna. Sinboloez oretu-pentsakizuna hitzaren aurretik doa eta erlijioaren guna da berez. Pentsakizuna heldu dueneko, sinboloen arian, barnea azaltzeko eta jainkoegazko mito-harremanak kontatzeko gei da. Mitoen esperientzian sagaratuen mundua eta mundu fisikoa bereizten ikasi du, gizakiak gizartetik ate dagozen indarrekin harremanak izan dituelako. Mitoa benetako historiatzat eta bizitzako jarraibide egokitzat hartzen du. Mitoan agertzen dira gizakia-ri indarra eta eraginkortasuna ematen dien arketipoak. Arketipoa hasierako eredu goitarra bezala dager eta gizaki jainkozaleak eredu hori jantzi eta haren arabera osatu behar du betekizuna lurrean. Horretarako erritoaren laguntza du. Erritoak jartzen du arketipoaren arian, hori baida erritoaren eginkizuna: erlijio indarra ekintzan egiztatzea. Hastapeneko erritoak, adibidez, izate arruntetik izate sagaratura dakar gizakia. Hastapeneko erritoak, beraz, izatasun berria ezarten zion giza jainkozaleari eta, haraz gero, beste duintasun baten jabe zelako ziurtasuna zuan. Horrela, sinboloak, mitoak eta erritoak adierazten duten mundu sagaratuak arartekoarena egiten zuan gizakiagan, goiko indarra kin harremanak izateko ahalmena ematen ziolakotan.

Giza jainkozaleak Paleolitos Harotik gerora, bere aztarrenak u-

2 RIES, J., "HOMO RELIGIOSUS", DR., O.C., P. 763-768

tzi ditu eta Jainko bakarreko hiru erlejioetan heldu ahal izan du goitar esperientzia, historiak dinon bezala. Giza jainkozalea, aspaldietako lekukoa ezeze, gaurko mezularia dugu hagatik. Euskara ere mezuotarikoa da, giza jainkozalearen artelana delako.

Erlejoien historia aztertu eta sikologistek arketipoetan sumatzen duena bera euskararen edukinetan aurkitzea harrigarria izango litzateke eta hako "sinistu hizkuntzari" deiak betetasuna lortuko luke beragan. Baina aurretik, giza jainkozalearen bulkoetan sakontzeko sinboloaren, mitoaren eta erritoaren ariketaz luzeago jardutea dagokigu.

1.3. Sinboloa eta pedagogia.

Sinboloa agiri baten zatikia da. Zati bata eskuan gordetzen dela, bestea urrunera urtikatzen da, itzuli baten ondoren dakarken bestearekin osatzea eta ezaupidea egitekotan. Zelanbait bidalita-ko gutunaren erantzunean dago joko. Sinboloak gauzen arpegi izkutuarena egiten du eta urrutiko mezuen bilakan ekitera bultzatzen du. Sinboloaren dinamika polo biren arteko eliptika baten mugimendua dela esan da. Ariketa horrek goia eta behea, argia eta iluna, ikusten dena eta ikusten ez dena, hurrekoa eta urrunekoa, Jainkoa eta gizakia elkar jokoan jartzen ditu. Horrela, giza indarrak aldatu eta bere barnean argituaziz giza gogo lurkoia espiritu-senaren morrontzan jartzen du. Sinboloak giza jainkozalea, beste argi eta indar baten irrikan oratzen duelarik, itunben baten eragina eta agintzari baten lekukoa da. Otoi ernamina du beregan eta agintzarien eta eskarien kunplimena itxaro du erantzunean. Sinboloaren garaikoak dira, beraz, dei-otzik soilenak, oihuak, erritoen garaiko otoitz edo esaldi osotuak baino lehenagokoak, gramatika erregelen aurretikoak eta herri ahotan gaurdaino iraun izan dutenak. Lau jainkoei euren izenen otsekin zuzendutako dejok gaurdaino iraun dute gure artean, baserriko euskararen berere, ez nundik, ez norako diren ostaz dakigunarren. Horra sailean 1^o eskeman oihuzko otoi bakoitza jainko-sinboloa-

1ⁿ eskema: OIHUZKOAK JAINKO ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU
ene/en	otoi	ara	(h)el
enei	ut/ux	arren	olé
iño/iñoz	et/eit	arrano	(h)il
oino	txut/ixo	arraio	ola
amen	ujui/jo	urra	ala(h)
añó	otian/utinam	rayos	alajina
aan	zut	arre	ale/ela
ainü	uxala/ojalá	ra/rau	iole

ganako deia da eta giza jainkozalearen arrigarritasuna, maitasuna, poza, une larria edo arbuioa adierazten dutela. Euskararen atal zaharrenak eta erabat elkarrizketa arruntenak dira. Gizaki jainkozaleak jainkoeganako zuen pentzuda, umeak amarekikoa duen bezelako da. Izan ere, sinbolo aldia kulturen umetzaroan ematen da. Jainko sinboloen monosilaboak giza jainkozalearen aboa eta ustea betetzen zuten, umearena “atta”, “ama” deiak bezala. Hitzok umearen lehen gizarte-harremanak diren bezala, sinboloak gizatasunaren aurtzaroa hesten du eta materiazko duen alderditik espiritura jainkotasun zorian jartzen du, sinboloa berez den argi-ilunbetatik, Jainkoagazko ituna eta haren agintzarien agiria dakarkiola. Hagatik erantzukizunera eta berbaz historian zehar ematen den erantzunera behartzen du, sinboloa den argitze-abagune eta zer pentzan garatzeko teknikan hutsik egin ez dezan. Sinboloaren logika Jainko Sortzaileagan sinistean datza eta haren eskakizuna berezko siniskera Jainko Eroslea aitortzen duten erlejioen esperientziarekin bateratzen da. Horrela sinboloa Sortzailearen mezulari da. Sinboloaren logikak Jainko agerpenen iturburura daroa, halako agerpenik egiaz, Kristautasunean bezala, haragitu baldin bada, sinboloaz sakra-

mentua eginaz. Agerpenon Hitza baldin filosofoak hitz iragariak bezala hartzen baditu, hitzotan barne indarra somatu duelakoz izan bide da. Edozelan ere, fedea norbere idekitasunaren arabera, irabazteko edo galtzeko erronka bilakatuko da, Ricoeur filosofoaren eritziz³.

1.4. Mitoa eta arketipoak

Mitoak antxina gertaturikoen berri ematen dute eta asabek edatzi zuten herriaren historia sakratua dira. Aurrehistoria direnez, historiaren oinarri izkutuak gordetzen dituzte. "Zirelako gara" jakiteak bizkortzen du mitoa ere, beraz, antxina eta atso zenak gaur eta bihar ere herriaren bizitza bultzatzen dator. Mitoa giza ekintzan indarra eta eragina dakarkion sinbolo-arketipoari begira dago. Jainko arketipoa gizartetik ate dagoen funtsezko eredu da. Sinboloaren jarraipen ohargabea, amaibako iraupenean joan eta giza gogoaren emaitzik berezkoena dena, gero-gero sorkuntzaren erroa ere bada, C. G. Jung⁴ sikologistaren ustez. Mitoa sinboloan oinarritzen da eta haren esperientzia eskatzen du aurretiaz. Handik hartzen du ipuinetan hasteko arnasea, haren arragoan berotzen du bihotza, mihinari mintsoa egotzi eta hizkuntzaren hasi-masiak harrotzeraino, hatan ere. Mitoek munduaren eta herriaren sorkuntza edo gizakiaren eta jainkoen arteko ezkontza harrigarria edesten dute halako hizkera zahar baten. Mitoa gertakizun haietan eman-agintzarien ituna da eta hizkuntza bera da agiri eta lekuko. Berari esker, gizakiak gizaldietan heriotz mugen gainetik, berrikuntza bilatzen du, itxaropenezko burruka amai gabeen ekiten diola.

Mitoak ereduzko kontakisuna egiteko arketipoak aurkezten ditu goitiko eta behetiko elkarrizketarien artean. Arketipoon argibiderik zoliena C. G. Jung sikologistak ematen digu. Arketipoak elkarte ohargabearen zeru makoa eratzen omen dute eta giza-

3 NEUSCH, M., "RICOEUR, P.", DR., o.c., p. 1525-1526.

4 VIDAL, J. "JUNG, C.G.(1875-19619), DR., o.c.p. 936-941.

kiaren betiko sormena adierazten. Egiturok, energia antzo, aldi-an eta norberaren oroitzaren aurretikoak ei dira eta giza ekinzen gidari orokor gertatzen, izadiko indarrekin bateratzen laguntzen diotela.

Era bitako arketipoak bereizten ditu aipatu autoreak: norbere-tikoak “de sí mismo” eta jainkozkoak. Norbere arketipoak giza-kiaren ardatz eta “ni eta ohargabea” osotzen dute. Norbere arketipoak, norberaz soildu eta halako bakardade esperientzian beste arketipoaren traszendentzian orekatzera omen daroa, Jainkozko arketipoak eratzen bai-du gizakia osotasunean, arketipo bezala, sinistu Jainkoagan, gizakiagan sinistu hal izateko ariketan bezala. Hizkuntza bera da mito bizia Jung sikoanalistentzat, hizkuntzak hasieratik datorren helburu beraren mezua bai-dakar.

Jainko arketipoak eta giza arketipoak ezagutzeko, egoki da behin-behinezko deiak edo oihuzkoak zerrendan jartzea, euren artean ze alde dagoen jakiteko, ea batak gizakiak jainkoei egin-oku edo birao diren eta, aldiz, besteak gizarteko olesak, oharrak edo destainak diren ikusteko. (Ikus 2^a eskeman)


2^a eskema : OIHUZKOAK ZAZPI ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
ene/en	otoi	ara/ario	el	bea/vaya	gel/gora	txist/chitón
enei	ut/ux	ra/rau	olé/iole	vae(i)	ka/quia	zaust/zás
iño	txut/ixo	arrano	(h)il	ave/afa	gero	ixi/atx
oino	et/eit	arraio	ola	ba/bua	coño	chao
amen	uju/ujui	urra	ala(h)	eup	agur	xapi/zape
ainü	otian/utinam	rayos	elas/alto	hip(i)	cáspita	asa/ajai
aan	zut	arre	ale/ela	uf/huf	kontuz	esti/este
año	ojalá	arren	alajina	balinba	agian	ezbe

Horra Jainko eta gizakien artekoitunaren zapi lekuko, zazpi konsonante-bailiran. Zazpi zenbakia izadi osotasunaren sinboloa delarik osotasun horretan egon behar zuten gainerako alofono/

hotskideak⁵. Eurentan lau jainkozkoak dira: *An, Utu, Ra, Ilu*, euri egotzi *uin, su, aire, lur* kosmogoniako lau elementuak bezala. Beste hirurak *Ka, Ba, She* giza arketipoak dira eta gizakiaren osotasuna ordezkatzeko: *kaizua/korputza, baita/psikhe* eta erriroz lorturiko *izate/esse* berria. Ikusten denez, denak dira monosilaboak eta konsonanteen esparrua osotzen dute, hau da, hizkuntzaren ahotsak dira, argiago ikusiko dugunez.

Jainkoa, J. Lacan sikiatraren arabera, hitza sortzen den unea da. Zerbait esaten den artean Jainko hipotesia zutik dago. Gizakia bere ezintasunean “Bestearen” irrikan jar



utzen omen da. “Beste” hori hizketa laguna da, nik berba egiten dudanean entzuten didana, nere hitzaren lekuko zintzo, hitzaren itunean deitzen dena edo egizkoa denetz jakiteko, eskatzen den hirugarren lekukoa. “Bestea” hitzen araudi unea da “código de los significantes”⁶. Giza jainkozalearen lekukoa, lekuko faltsoa ete zan, ba? Autore beraren beste azal

no eta to urliaren bila

pen hau ere ardurazkoa da giza jainkozale zenaren eta ez denaren arteko esperientziak bereizteko: “Giza jainkozaleak auzia Jainkoagan uztean, egiarako norbere bidea oztopatu egiten du. Norbere gogoa ere Jainkoaren eskutian sakrifikatzeke jarrera du. Bere eskaria Jainkoaren ustezko borondatearen peko egiten da eta, harrezkero, ha limurtzen saiatzen da eta handik hasten omen da maite-jokua”. Umea ama-rekin “tattantxuka” hastea beti ere osasun seinaleztat emon da, eta ez ostera, umekoa sikiatrarekiko tratamenduan hastea.

5 “SIETE”, Dic, B., o.c.p. 1858-1859

6 CATALAN, J. F., “LACAN, J. (1901-1981)”, DR., o.c., p.970-9971. Cf. Elkarrizketan 1ⁿ pertsona *no*, 2^{na} *to* eta 3^{na} *ar/ura, él/ella=ur/ia* dira. Lehen biak sumeriar *Anu/Utu* jainkoengandik analogizatuak, 3^{na} *Ra/Ilu/El* jainkoengandik.

1.5. Errittoa eta hizkuntzaren magia

Errittoa gizakia bere ekintzan zuzen erabaki eta zertu ahal dezan, arketipoekiko harremanetan jartzen du. Horrela hasiberrien herrittoa izate arruntetik izate berrira aintutzen du, sagaratuen arian⁶. Errittoa giza baldintzak ikasbidean jartzen ditu eta ordena arruntaren partekide sentiaraztetik, ordena berri batera jasotzeko gei den indarretan murgiltzen du. Era onetan hasierako artezia=magia-sena, sagaratuen einera heltzen da eta azkenik erlijio jarkera baten garatzen. Hagatik errittoa legea gogoaren beharrezko legeak gainditzea da.

Errittoa funtsa jainkoekiko harremana erraztean datza. Bide batez, elkarte baten erlijioa eta kultura finkatuz, herriaren batasuna indartzen du. Errittoa indarra galtzen du, hala ere, ideologiaren bat-edo berataz jabetzen denean.

Errittoa, elkarteak gordetzen dituen oroitzari esker, hasierako esperientziak gaurkotzen ditu, dela munduaren, gizakiaren edo herriaren sorrera eta salbamena kontatzen diguten.

Garbiketa errittoa, eztralakoan ere, erruaren aitortza da eta sutan erretzen den bitimak penitentziatzko garbikuntza adierazten du. Garbikuntza berdina bilatzen du gaitzak arautzeko erabiltzen zen eta den ur zipristinduak, dela inauteriko edo elizkizuneko ixipuan. Errittoa gaitza gainditu nahi du sagaratuaren indarraz. Jaiaren mezuak sagaratuaren garaipena eta poza ozenkatzten du, jainko indarrez heriotza ere garaitua izango delakoaz. Sumeriako tenploaren santuenean *ma-h(s)* jainko "imago(l)=antz" zegoen eta gizakiaren *kù-g(s)* "gogozko santu=hagios(g) izateak" eta *zi-d(s)* "jainko santutasunaren partekide txit zehatza izateak" men egiten zioten, errittoa sinboloaren eskolakoa zelaririk⁷. Areago, *me(s)* bakoitzaren arabera iharduten zen einen, *me*=adu-

6 RIES, J., "HOMO RELIGIOSUS", DR., O.C., P. 763-768

7 RIES, J., "SAGRADO -2. La expresión de los sagrado en el mundo sumero-babilónico", DR., o. c., p. 1577-1578).

ak indarrean egozen, bestela hutsean gelditzen ziran. Euren eskolako izan ziren hatitarrek ere, askozaz geroago, zehatz mehatz taxutzen zuten erritoetan partele bakoitzaren kokagunea: erregearena lehenengo eta haren menpekoena hurren, hori baitzan jainkoei sor-zuzenbidea, hori jainkoekiko begirunea eta eraspina izatea. Erritoei jainkoak gurtzeko jakinduria ere deitu izan zaio, hagatik hitza dager jakinduria horren adierazpide.

Sumeriako apaizek onomastika bidez jakitearen enziklopedia egitean, AN/ANU jainkoaren izena jartzen zuten aurrenean, gero haren emazte eta seme-alabenak, gero etxekoena eta azken, morroienak. Halatan, arketipoari jarraiki, idatzi zuten toponimiaz, astronomiaz, gramatikaz,⁸ etab. Hori idazki baten buruan gurutza bat edo amaieran A.M.D.G. jartzea baino zerbait gehiago zan, egia esan, nahiz eta ekintza biak erazpen beraren ondore izan. Onomastika haiek hizkuntzen lehen hiztegiak izan ziran.

Orain, bada, jainko nagusien izenak eta giza konplexuaren arketipoak hitzetan elkarrekin jostean, non kokatu behar ziran bat eta besteak edo ze jakinduriak orekatzen zituan hitz beraren egituran? Egiptoko mitoak dinonez, Toth jainkoak asmatu zuan hizkuntza, jainko eta gizakien arteko harremanak erraztekotan. Harremanok erritoetako otoitzetan=*oraciones* azaltzen ziran. Herriak monosilabodun oihuekin egiten zuan. Zelan azaldu jainkoegazko jarduna, edo ikasi jainkoekiko hizkuntza, norbaitek "hable usted cristiano"-edo esan ez diezaigun? Apaizek erritorako eredu osatuagoak eratu zituzten. Harrezkero, ereduzko esaldiei *oraciones* deitu izan zaie gramatikan ere. Errito hitzak=ototia arketipoz ondo taxutuak izan behar zuten, ahotzez inoena benetan egizta zezaten. Halako hitzak magia berezia zuten Sumerian, Babilonian eta Egipton. Esaneko hitzak balore totala zeukan euskaldunen artean, kontu hagatik esankizuna zehatz ala oker moldatuta dagoen, kosmoko ordena apurtu ez zezan edo

8 LIMET, H., "PANTEÓN"(religiones mesopotámicas), DR, o.c., p. 1357.

hako sorgin hasiberriari “hodei guztien gainetik eta sasi guztien azpitik” esateagaitik gertatua gerta ez zezaion.

Euskara-xedea hasierako artezia-bide horretatik eta heldutasuneko errito-arautik doala progatu behar da, bai proto-euskara garaian, monosilaboka mintzatzen zenean, eta bai, giza arketipoak jainko arketipoekin alkartuz gero, hitz aglutinatuez edo zau-liagoez baliatzen denean. Hitzon aglutinatzea erritoz sagaratu mailan jartzen ditu giza arketipoak eta giza arketipoak hitz berean jainko arketipoez lotzean, jainko eta gizakien arteko ezkontza=*hierogamia* adierazten du, euskara bera dela elkargo horren ituna edo itun-agirietako bat. Eta hori, euskara paradisuko hizkuntza zela esatea baino zerbait gehiago da.

1.6. Euskararen oroitza eta mitoazterketa.

Mitoak jainkoekiko itunen kondaira dira errito-ohikunak egiztatu eta aldioro berrizten duen bezala. Euskara halako itunaren agiria denetz jakiteko, giza jainkozalearen pentsamoldea ezagutzen duenaren xedez idekitzea baino ez dago.

Oroitza norbere edo herriaren sorrera bilaka dihardutenen e-kintza da. Usadioen arian, halako edo bestelako eguna ospatzean, gainerako arduetatik jai egin eta eztalakoan ere, beste aldi bateko unera ihes egiten da, Gabonetako ospakizunetan edo eta Inauterietako pasadan gerta ohi den bezala, erritoak oroitza astintzen datozelako. Oroikizun horrek gaurkotu egiten du antxinateko ilunpetan edo igarkizunetan nonbait jaso zena. “Legea bete dugu” esan ohi da halakoetan, oroitzatik ate dagozan usadioak ere legezkoak direlako, ots, “costumbres inmemoriales” eta alperrikoa izan da halakoetan usadioen kontra ihardutea.

Edotariko erritoek antxinako gertakizunen oroitza inutzen dute. Ohiturok baztertzea elkarteari uko egitea eta norbere burueritsia murriztea da. Euskara baztertu eta erdaldun egin direnen zentzuegaberia jorratu dugu eta herri saltzailatzat jo izan ditugu halakoak. Guraso saltzaile askoren seme-alabak aurretikoen

gerena garbitu nahi izan dute, zorionez. Hizkuntza, kultura mailan ikusten duguna bera egotsi genezakio, hala ere, erlijio mailan gazteriak egiten duenari, elijioa elkarte-erritua eta elkarteak bilzen duen ohitura den aldetik beheinipehin. Hurrengo saldukeria, europar batentzat berere, gure kulturak erakutsi dizkigun jainko-esperientziatik ate, gure kulturako ez den gogo-biltze tradendentale itxuetan-edo murgiltzea izango litzateke.

Hasierako aldiatara heltzeko, joanak berreskuratzea sikoanalisian erabilten den teknikaren antzekoa da: norbere igarua gogorantsi eta hataz jabetu, haien aurretiko desorekarik berriro gerta ez dadin izadian, ez gizartean, ez gure herrian. Halako oroitzak-ekina norbere defentsa da eta, aldiz, asaben kultura esperientziatik transmigratzea, atzerapen eta galpide galanta. Horrek sortarazten du, adibidez, Ameriketara, inditarrak aparte, asaben sustairik ez duten askoren konplexua, eta irrikiz abizenen jatorriaz zer nondiko diren, zer esan nahi duten galdetu beharra.

Oroitzak giza mugatasuna gainditzen du, oroitzak, osterak, gogakeraren heriotza dakarke. Arimak bere sorrera oroitu behar du, pitagorikoen arabera, etorkizun eziurreko zirimoletan ez jausteko, oroitzaren bitartez gizakia hilezko⁹ eta jainkozko giza-ki egiten baita. Halako oroitzaren gorakada hasierako inosentziaren antziaz datorke. Erlijioek euren hasierako ekintzen oroitzak egiten dute euren eleizkizun-errituetan, "egizue hau neure oroigarri" (1Kor 11,24-25) esaten denean bezala. Halako oroitzak gizakiari jainko-ekintzak berrizteko ahalmena ematen dio.

Ametsetan oroitzen omen dira maiz esnaldian aztutzak emondakoak. Giza barnean argitaratu gabeko energia multsoa omen dago; hasierako oroitzak nonbait, giza elkarteak bere soinean gordetzen duen ohargabeko oroitzak, C. G. Jung psikologistaren¹⁰ gardiz. Indar eragingarriak astintzen omen du halako oroitzak, irudia

9 MESLIN, M., "MEMORIA(funciones religiosas), RD, o. c., p.1162-163

10 VIDAL, J. "JUNG, C.G. (1875-1961), "DR., o. c., p. 936-941).

ren eta sinboloaren logikak haren hizkuntza taxutu eta halako jainko egituretan isileko mezuak gordetzen dituela.

Oroitza urritzean, Jainkoak gehigarriren bat bidaltzen omen die gizakiei igarleen eta santuen bitartez. Euskara ia azkenetan zegoela, eta hizkuntzalariak bazterreko gelan eznotzat, edo ezaintzat, sartuta zeukatela, erantzule urten eta arnasa berriaz bizkortu nahi ditu gizaldion azkenak. Bera dugu nonbait gure oroi- tzaren gehigarria eta igarlea, gure ohargabeak gorderik euki duen antxinako segetuen giltza. Mitoa eta euskara bera den mitoa, mitoen argitan, aztertuko dugu gaurko gure askoren kultura-argigarri izango delakoan. Ez dugu mitoen texto zaharrik, ahoz-ahozko kondaira bakanak baizik, baina antxinatea inutzen duen hizkuntzaren hitzak balio digu eta hitz hau mitoaztertuz haren barne edukinak jasoko ditugu.

Mitoen argitara aztertzeko ohitura sartzan doa antropologia eremuko zientzia gehienetan. Mitoetan kontagaia dena linguistikak aztertzen du, izadi eta gizadiaren arteko zioak soziologiak, etnologiak eta erlijioen historiak, sinboloa dena sikologoek, filosofoek eta antropologoek begiratzen dute. Teologoek mitoetan datzan Jainko aztarrenak bilatzen dituzte. Baina hizkuntza, mitoen garaikide den hizkuntza bera, nork aztertu behar du? Hermeneutek, agian, estrukturalistek, mitoa dekodifikatzean eta gizakia den konplexua fisikaren eremura murriztean, porrot egin zutenez gero.

Mediterraneo inguruan alde batetik bestera antxinatik oreto izan zen kultura zaharra aztertzeko suzia du eskutik euskarak. Antxinako Sortalde Hurbileko erlijio eta jakinduriaren azterleek eta Bibliako exegetek bidea ideki diote euskari, euskararen orduari. Euskarak gehigarri opa die orain argitan euren ahalegiaren orde.

1.7. Toki sagaratuaren izenak

Tokizenak antxinako onomastiken giza jainkozalearen ondarrea dira. Tokizen askok euskararekin batera iraun ahal izan dute, Ainamendi inguruan berere, eta euskara galdu den einean, ilundu egin da haien soinua eta edukina.

Tokizenekin etimo herrikoiak egin zaleak gara euskaldunok, antxinako oihartzunen bat edo zerbait ematen dutelalako gure belarrietan. Ez da berdian, hala ere, *Aines* edo *Etxaeina* formen edukina antzematea, ez eta *Etxetto* edo *Tosa*, *Etxaire* edo *Arias*, *Etxela* edo *Elche/Elsa*, *etxe/txe/etze/tze* ereduaren edukina argi dugulako eta haren burutik erraz antzematen dugulako, ez, ostera, *Es-/As-/Ez-/Az-* edo beste ahozkeretan aurrizki edo atzizki ikusten dugunean, *Espera/Péres* bezalako egituretan, bai ostera, *Etxepare/Beratxea* formetan. Tokizenetako arketipoak, aurrizki edo atzizki doazela, mitema edo arketipo bereziak bezala aztertzean dago edukinaren gakoa.

Tokizenetan toki sakratuak ditugu arduratan, eurak direlako jainko zaharren oinen lorratza dutenak eta eurretan mendien izenak berere, mendiak jainkoenak zirelako¹¹. Giza jainkozaleak mendira begiratzen zuan hako "laguntza neri nondik" (Sal 21,1) salmoetakoa bezala. Eguzkia mendien ostetik itoitzean edo mendian ostean ortzitzean, hara joakozan bigiradak eta aurreneko eta azkeneko otoiak. Mendirik ez zegoen lautadetan, Sumerian eta Egipto-Behean bezala, zigurat eta piramide tontorrek eraikitzen ziran, jainkoengana urreratzeko mailadi eta guzti, jainkoek haien gainean zutelako oinak non ezarria edo non atotzia.

Mendi batzuei "mendi behinenak"=*montes primordiales* zerietsen lurraren oinarriak zirelako edo ugoaldearen erasoan burua gailen gorde izan zutelako, ots, jainkoen bersorkuntzako lehen

11 Dic. B, "MONTE DE DIOS", o.c., p. 1299.

3ⁿ eskema : AURRIZKI-PREPOSIZIOAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
ana-	ato-	arra-	lo-	be-/fe-	ek-	etxa-
an-	at-	re-	lu-	ber-/per-	co-	itxa-
ante-	ad-/de-	era-	el-	para-	com-	eis-
amfi-	so-	er-	ala-	pre-	kata-	ex-
en-/em-	sub-	ira-	la-	pro-	kara-	es-
in-/im-	su-			upa-	ok-	se-
(h)andi-	dis-, dans			uper-	oc-	s-
	tra-/trans-			ep-/ef-/epi-		

sorkariak zirelako. Hoiak dira Eufратres eta Tigris bezalako errenken sorguetan dagozan mendiak edo Baradisuko erreka buruak (Has 2,11-14).

Ainamendiak ere urgune erraldoiak dira. Euskaldunek, amari bezala, mendi hoiak magalari atxikiak iraun izan dute gizaldietan eta haren *Barrena/Nabarre* ere gertatu zelako. Mendiak jainko indarra eta babesa opa izan die historiako gorabe-beheretan (Ez 28-14). Hagatik ziran AN/ANU jainkoaren mendiak, *Ainamendi*, *Anetto*, *Anues*, *Anielarre*, etab. Zergatik ez dugu egin euskaldunok *Ainamendi/Mendaina* edo *Ainomendi/Mendaino* erdaldunek *Montaine/Montaña* egin duten bezala? AN/ANU jainkoari lehentasunik ez kentzearren. *Anielarre/Lorraine* eginez gero, edukina total aldatzen delako gaurko euskaldunaren belarrietan, *Ainamendi/Montaine/Montaña* egitean bezala.

Beste hainbeste esan genezake *Otoiomendi/Otamendi* eta *Montoto*, *Aramendi* eta *Montería/Monteré*, *Elamendi* edo *Montella*, etab. itzuliketetan, jainko arketipoetatik hasteko lain esankizun. Giza arketipoekin ere gauza berdina gertatu zan. (Ikus 3ⁿ eta 4ⁿ eskeman)

Aurrizki atzizkiok, hizkuntzaren hasiera bateko monosilabo e-

4ⁿ eskema: ATZIZKIAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
-(e)n	-tu/a	-ar	-illu/a	-be/-pe	-ica/o	-tze
-ana/o	-tio/a	-er	-la/-le	-va/o	-ko/u	-es/a
-(a)nia/o	-ti/-di	-ara	-ullu/a	-ba/-bia	-go	-ez/a
-enea	-tto/a	-aria/o	-el/a	-via/o	-ki	-sia
-(a)ña/o	-txu/o	-aire	-lo/a	-pia/o	-gi	-za/o
-(o)n	-dui	-era/o	-lia	-fa/o	-ca/o	-ese/a
-ina/o	-so/-jo	-iri	-il/-l	ap/-p	-aca/-ac	-ex

tenak ziran, geroagoko aglutinazioetan ere aurrada edo besteekiko nastea egokien eta hizkuntza zauliagoaren orduan, berriz, aurizkiaren ohorea zuenak atzizkieren edukinak lortzeko edo sintaxiaren joskerak egiteko adabaki bezala erabilten dira.

Atzizki aurizkion egituretan euskara latinaren eta erromani-koen aurretik doa, joatez, nahiz eta gero erromanikoek haietako batzuez euskara berak baino gehiago uztiatu duten.

1.8. *Sinonimoen lekukotasuna*

Eskerrak euskalkiei, euskarak sinonimo asko batu izan du hor-
tik hemetik. Denen kopurua zaintzea ez da lan erraza izango,
baina K. Mitxelenak aipatzen zuan jatorriaren kate-begia egiten
dute euskararen mitoazterketan. Bat ere ez dago soberan eta
asko, berriz, beharrezko zen katebegiarena egiten datoz, etimoen
sailean ein berezia merezi dutelarik. Ugarikor=*variante* ustezko
batzuk ere bata bestearen sendia osatzen dute, baina arketipoen
maila ezberdinean: *ortzi/egortzi/ehortzi* andana, adibidez, Ho-
rus=*iruzkiaren sarrera adieraztetik giza gorpuaren egorketa adi-
erazteraino dator. Sinonimoez hasten da semantika bereizten,
baina nabari, itoitu, urten, elevar, agertu, burutu, salir* andana

ere arketipo ezberdinez egin adierazpena da. *Ononzaro, Subilaro, Oronzaro, Olentzaro, Eguberri, Gabon* seiko andana da eta aipatu-kulturetan eman den sorkuntzako erritorik nausiena adierazten dute. Euskarak denen oroitza gordetzen du, Kristo aurretikoen eta gerozkikoen eratan. ANU, UTU, RA/HORUS, ILU eta azkenean KA giza arketipoz burutua. Izen larregi ote dira? Izenok laburpenez euskaldunen historiaz aurretiko eta historiaz geroztiko erlejioaren barri dira. Bat ere ez ezetsi, aurre-historia historiarekin bat egiten bai-datoz eta kate-begirik ez da itxi behar. *Aintz, doxa(g)/duin, ore, loria, honore(l), gloria, santun santua* gizakiak jainkozko edo gizaki ereduaz lotu nahi duen duintasuna adierazten dute. Euskararen oroitza grekoaren edo latinaren gaineratik dago jakintza honetan, baina noiz edo behin euskeran agertzen ez diren katebegiak grekoan eta latinean edo erromani-koren baten agertzen dira. Hainbeste katebegiz erraza da sumerieraz, akadieraz, ugaritikoaz, egitieraz edo heberkeraz topo egitea, euskararen sendia eta haren lehengusuak apurka argitzen doazela.

Sumeriako ta Egiptoko apaizek jainko arketipo bakoitzaren eredupean gai guztiekiko onomastikak egin zituzten, hagatik ez zan harritzekoa, judeguk bezala (Ek, 18,15) herri edo kultura bakoitzak bere jainkoen eredu bultzatzen nahiean izenak eztabaidatzea.

1.9. *Etnografiaren lekukotasuna*

Herriek Jainkoaz duten pentsamoldea jakiteko, herrion hizkuntzak, ohiturak eta gizarte-egiturak ezagutzea beharrezkotzat ematen zuan J. F. Lafitau ikerleak XVIII-ko gizaldian. Hortik hasiko litzateke Etnologia lana egiten, ohiturak aztertu eta interpretatzen. Lafitau, Ameriketako inditarren ohiturak aztertuz¹², antxinago grekoen edo asiatarren jarrerak ulertzera heldu zuan. Euskaldunok omen dira antxinakoen eratara dantatzen duten herri bakarra European. Dantzak deskribatu ditugu. Baina zer e-

12 RIES, J., "LAFITAU, J.F. (1681-1746)", DR, o.c., p. 917-972

san nahi du "Doniene Dantzak", esate baterako? Noren omenez dantzatzen zan/da? Nork esango digu, edo nongo dokumentuk argi egingo? Euskaldunok, euskara dugu inondiko ikerlan tresna eta berari atxiki behar gatzazkio, geure Etnografia Etnologia mailara jaso ahal izateko. J. M. Barandiaran eta C. Barojak, esate baterako, etnografiazko lan bikainak egin dituzte, baina J. M^a Satrústegik, Thalamas Landibarri jarraiki, Urdiango "ur goiena, ur barrena" ohikuna Sortalde Hurbileko mitoaz lotzen duenean, ots, gaurkotik antxinaterako zubia egiten duenean, zioen sorguraino heltzen da, eta Etnologia lana egiten du, herriko ohituren azalpena ematean. Bide beretik aurrera ekin behar da, erritoak, ohikunak eta imintsioak mitoaztertzen, atsotitz, dantzagai, kantagai eta esakera zaharrekin batera. Izenak eta hitzak balioztatu eta euren arian hizkuntza bera, ohikuna eta imintsioen luzapena ezeze, errito osoaren barne-azalpena bai-dira.

Euskara deskribatu ezeze, haren ereduak antxinatean idoro nahi dituenak lan berdina egin behar du, non sinbolo-mito-erritoak han aurkitzen bai-dira hizkuntzaren erroak ere. Hitzari lotu, hitzak du giltza, hitzak egiten bai-du hizkuntza. Horrela euskal Etnografia eta euskara elkarren eskutik doaz, batak bestearen aitor egiten dutela. Etnologiak zioen argitasuna ematen duen bezala, hala euskarak, eredu berri emango du, ots, sinboloak antzeman, mitoak elekatu eta erritoak ospatu zituzten antxinako herrien zentzunera itauntzen zaion neurrian. Antxina bateko Sortalde Hurbilekoen errito-ohikuna batzuk hasiera batetik gaurdaino gurean gorde ahal izan baditugu, haien sinboloak ere gure hizkuntzaren eredu izan daitezke, ez haiek asmatu zituztelako, gurek ere haien ikuskizun bereaz izadian sumatu zituztelako baizik. Egoki da, beraz, haien ohiturak eta testoak ikertzea eta euskararen oroimenari galdetzea, ea bien arteko kutsuaz tximist argirik sortzen duen.

13 SATRÚSTEGUI, J. M^a, *Mitos y creencias*, o. c, p. 40-43. Cf. THALAMAS LABANDIBAR, J., *Notas sobre cosmología vasca*, Bol. RSVAP, 1977, p. 76.

1.10. Jakintzaren aitorra

Antxinako Sortalde Hurbileko jakintza-idazkiak mitoen kon-dairen jarraipena dira. Jakintza zaharra edo kosmikoa izadiak arduratzen da, jakintza berria edo antropologikoa, ostera, giza-kiaz. Jakintzako testuak maisuen teologia edo giza arrunten azal-penak ezeze, giza asmoen eta jokeren antropologia dira.

Jakite, jakintza erabili ohi dira, gehien bat, “*sciencia*(*l*)=*cien-cia*” adierazteko eta *jakituria/jakinduria* “*sapientia*”(=*sabiduría*) esateko. Bata gizarteko eskolatik emana dator, bestea izadiak emaniko mentua da, bata jakite ikasia eta bestea, abereengan ere ikusten den berezko jakite-sena. Teknika, esate baterako, eskolaz ikasia da, baina jakinduriak izadiko ordenan ere baditu erroak. Teknikaren eragina aro=zirkulo batera lotzen da, jakinduriarena, ostera, sinboloaren eraginean ikusten denez, eliptika bat bezala, astintzen da eta haren polo bata gizakiagan dagolarik ere, beste-ak mugagabera jotzen du. Jakinduriatzko hiru aldi bereizten dituzte exegetek: izadikoa, gizartekoa eta teologiazkoa. W. Schmidt, erlejioen historigilearen arabera: antxinakoa, antropologiazkoa eta teologiazkoa dira, azken honen zeregina aurreneko biak az-tertu eta lotzea delarik. Izadiko jakinduria kosmoaz eta jainkoen sinboloez arduratzen da, haiengan agertzen diren argi eta arte-ziak lurrian, abere uxuengan berere, zelan ematen diren eta nola sinbolo haien eredura distiraten eta betetzen den gizarteko or-dena¹³. Kosmoko jakinduria honen lorpenzat ematen dira, adibi-dez, Sumeriako eta Egiptoko apaizek jainko izenen eredupean egin zituzten lehen “onomastikak”, Enziklopedian bezala, ezar-ten bai-zuten jakite guztia. Hitzak ezin zezaken utsik egin, ez kosmo ordenaren oihartzunetik urten. Hagatik hitzak ondo taxu-tuak izan behar zuten, adierazten zutena egizta zezaten.

Gizakien moral jarkerak, hitzak bezala, ordena hori jarraitzen zuan: “Jainkoek zuzena saritzen dute eta gaiztoa zigortzen”, esa-keran bezala. Gizarteko jakintza gizakiaren bizi-arazoez ardura-

13 MORLA,V., *Libros sapienciales y otros escritos*, o, c., p.135.

tzen zan eta bere eroien mitoak ezarten ditu arazoon adibide. Gizadiko jakinduriak, ostera, ez baitan jartzen zuan jainkoen zuzentasuna, errugabea ere zigortua izaten zelata, zantar asko osasunean bizi zirelata. Eztabaida honen inguru asko harrotu zan herri jakinduria. Egipton jakinduria ofizialak, *Merikarê erregearen ikasbiderako* edo *Legezko ikasbidea*, adibidez, jainkoen jakinduria aitortzen zuan, baina herri-mailako jakinduriak *Ipu-urren alamenduak* edo *Arpajolearen kantuak* eztabaidatu egiten zuan. Sumerian nausitu zan, hala ere, aienen literatura zaharrean, jainko bila, *Luddludl bel nemeqy* bezala, edo arnegatua, *Elkarrizketa acróstikoa* bezala. Zati bat geroago Udumeako *Joben Liburua* dugu aurretiko eztabaida askoren bilduma erdua. Gakook aska-tzera datoz, Israelen, berere, Ben Sirak-en teologiazko jakinduriaren oharrak, eta K.a IIIⁿ gizaldiraz gero halako gizatasunez ate joka eta ezjakinei berak eraiki-eskolara deitzen datorren Jakinduria iragarten zaie (Esa,1-6).

Jakite, jakinduria=sapientia=sabiduría egiturek giza arketipo biak *She+Ka* andanan jartzen dituzte aurrizki, baina ez nolabait jainko ereduazko bilgune barik. Jakinduria, hala ere, jainkoazko ereduez eta giza ereduez osaturiko argibidea da eta hizkuntza beraren eta kulturaren haroak jarraitzen ditu, arketipoak lekuko. Izadiko jakinduria jainko arketipoei begira dago eta gizarteko jakinduria, aldiz, giza arketipoei.

1.11. Gramatikaren aitorra

“Jainkoak ahienatu ditugu, baina gramatika ezin ekidina da” esan omen zuen Nietzschek. Hitzari hainbatean bere artezia ezeze, gizatasuna ostu diogunarren, Gramatikak jainkoez eta gizakiaz aitor egiten du oraindino. Gure hitzak ez badu hitza asmatu zutenen mezurik, gizadiarena da galpena eta merezi luke haren galdera egitea eta hitzaren mezu sakona berreskuratzea. Jakin, adibidez, jainko arketipoen mailan *AN+TU>antu*, *aintu*, *anditu* egiten duena eta jainko+giza arketipoen batzean, *AN+She>antz*,

antzi, naza dakarrena, baina giza arketipoek, berez, *KA+She>gaitz, geza, gitxi* baino ez direla eta hirurak batean *She+Ka+Ba>atzekabe, She+Ka+An>atsegin*, barriz.

Giza jainkozalea, sinboloak batuz edo aurkatuz, hitzak asmatzen harrigarri bazan, ez zan gutxiago hitzen loturak ere mitema berekin egiten. Hitzen loturok, hain zuzen, giza jainkozalearen pentsamoldea egozten dute: NOR/NORK/NOREN, NON, NOIZ, ZEGATIK, ZERTARAKO, ZERTAN, etab. kategoriei erantzun beharrean, non aurki ze-zaketen jainko eta giza arketipoetan baino erantzun ziurrago eta laburragorik? Une/aldien eta zio/ondoreen iturburu jainkoek baziran, haren arketipoak ekidinezinak izango ziran argibideon loturak asmatzerakoan.

Euskara argia da lokarriginen, baina latina eta erromanikoen eurak ere maiz ados datoz, euren konjuntzio eta guzti, ohiko arketipoen hurtasuna aitortzen. Euskara atzizkiz josi-zalea dela eta erromanikoen, ostera, preposizioz. Hitzaren egitura mitoaren logikaz eta erritoaren zehaztasunaz egina da, baina gramatikako joskera-lokarriak, atzizki edo aurrizki, arte berezia eskatzen zuten, haren doitasunean ere, gramatikazko azalpenetan jainko indarra edo giza legea aditzen emateko.

Gramatika ere, beraz, giza jainkozalearen lekuko da. Gramatika da, izan ere, giza ideen ontzi materiala. Analogia ikusgarri eta entzungarri diren irudiez ideen¹⁴ aditzera heltzen da, hizkuntzaren garapena analogian bai-datza. Ez mendien edo herrien izenak bakarrik, izenen dindirriak eurak ere, giza jainkozalearen eskutik jainkoez eta ohiko gizarteaz aitor egiten dute, beraz mito-analizatzea harrizkutsua da Jainko arazoa itzuri nahi luketenen-tzat. Giza jainkozalea, jainkoei saldua izango zan, Lacan-en ustez, baina gizakiak egundaino egin duen arterik bikainena, hizkuntza alegia, egiteko aina izan da. Ze hizkera egingo luke jainkozale ez den gizakiak? Ordenagailuz-edo, datorrena datorrela oreturikoren bat, agian, eta giza jainkozaleak asmatu-hizkuntza

14 SCHEFFER, P., "JOUSSE, M. (1886-1961)", DR, o.c. p. 916-918.

bera erabiliarren, haren mezu historikoa ezetsi.

1.12. Arketipoen zazpikhun

Zazpi zenbakia jainko izenekin biltzen da: “Eli-sheba, Yo-sheba, Yahvé”, orokortasuna adierazten. Zin egiteko, zeruko eta lur-reko zazpi lekukoak eta zazpi ahalak deitzen ziran, “denak” esateko (Is 1,1)¹⁵. Zazpi egunez asebetetzen=*she-bu>shabbatu(a)* da astea eta Yahvek egindako sorkuntza lana. Zazpikhun ziran Sumeriako jakintsuak eta zazpikhun Jakinduriaren zutabeak, argimutileko argizariak lez, etab. Zazpi notekin soinutzen dira musikan armonika guztiak eta ahoz-ahoko hizkuntza ere zazpi arketipoen otsez eta euren alofono=otskideez osotzen zan giza jainko-zalearen ustetan.

Kosmogoniako lau elementuak: *uin, su, aire, lur* edo euren sorkari jainko ordezkariak ziran zeruko lekukoak eta anthropos=giza konplexua osatzen duten *kaizu=gorputza, baita=psikhe* eta jainkoengandik erritoz lortu *santu izatea*, ostera, lurreko lekukoak. *Anu* “zeruaren” sorkari da *uina, Utu* “iduzkiarena”, *sua*, Rê “iruzkiarena”, *airea*, eta *Ilu* “altzuarena”, lurra. Giza konplexuak osatzen duten *Ka “kaisua/gorputza”* eta *Ba “baita/psikhe”* berez eman lekuko ditu gizakiak, baina *She santutasun=zi-d(s)*¹⁶ txit zehatza izatea erritoz bakarrik lor zezaken jainko eskarra zan eta haiekin harremanetan hasteko duin egiten zuan.

Zeru eta lurreko zazpi lekuko hoiak osatzen zuten giza jainko-zalearen ustetan zeru eta lurreko auzitegia, eztabaida, elkarrizketa eta epaia. Egoki zan zan, beraz, zazpi lekukoon ulerbiderako zazpiron izen-arketipoz osatu-hizkuntza erabiltea. Europako parlamentuan batzarkide bakoitzak bere jesarlekua dauka eta hatarako bateratu hizkuntza ulerbide. Hizkuntzan, ostera, arketipoak eurak dira auzian zeru eta lurreko ordezkari eta ulerbide.

15 “SIETE”, Dic. B., o.c., p. 1858-1859. Cf. *xabe/jabe, zeba/zebatu*.

16 RIES, J, “SAGRADO -2. La expresión de lo sagrado en el mundo sumero-babilónico”, DR., o. c., p. 1577-1578).

II. JAINKO ETA GIZA EREDUEN MITOLOGIA

Sinbolo bakoitza arketipoa=eredua eta pertsonaia da mitoen narrazioan. Pertsonai bereziak ezeze, familia baten buruak ziran. Jainko ereduak izadiaren sortzaile, biziaren urgazle agertzen ziran eta giza ereduak euren mugatasunean jainkookiko harremanetan. Mitologiako kontakisunotan antxinako Sortalde Hurbileko literatura bakarrik erabiliko dugu: Sumeria, Akadia, Babilonia, Egipto, Ugarit eta Biblian euren kutzuko jakinduriazko idazkiekin batera, idazkion zehaztasunekin.

Nahiz idazki asko K.a. 2.200 urteko akadiar edo babiloniarren garaikideak izan, antxinagoko idazkien berrizketak edo antxinagoko jasorikoen hiruzkinak dira, erregeren baten koroatze erritotan aurkeztuak, *Enuma elhish* idazkia bezala. Zaharrenetarikoak Sumeriako *Ugoldearena* edo *Gilgamesh* dira; giza eduko ekin-tzak kontatzen dizkigu. Egiptoko idazkiak jainkoen eta lurberaren sorkuntzaz egindako teologiako azalpen laburrak dira, eta Ugaritekoak, berriz, erritoen arian antzetzeko emanak.

Jakinduriazko idazkiak mitoen jarraipeneko literatura dira, gizakiak bere kautan edo jainkoekin egin gogoetak berere, sumeriar *Gizakia eta bere Jainkoa* bezala edo herriaren eskolarako idatziak egitiar *Merikarê erregearen ikasbidea*, adibidez. Lekuko onak dira, batez ere jainko eredu nausien izenak ez dituztelako aztutzen, nahiz haien familiako beste jainkoak ere aipatu. Bibliako pasadisoak, beranduagoak izanarren, lekuko onak dira, albo herrietako pentsamoldea eta jakinduria santzuak egiztatze-ko ere, maiz haien kutsua bai-darizkie.

Eskerrak idazkioi eta errito arauetara Sumeriako eskolak haren aginteak baino zabalkunde handiagoa eta iraupen luzeagoa izan zuan, Akadian, Babilonian, Sirian eta Anatoliako herrietan. Bai ta Egiptoko kulturak ere bere magiaren eragina izan zuan eta ez inguruko beste jainkoei keinurik egin gabe.

2.1. AN jainkoaren naza eta mitologia

Sumeriako onomastikek *An(s)/Anu/Anum(a)* jainkoaren familiar batzen zituzten bere nazako *Enlil, Enki, Inana* eta azkeanean eredu bereziko den *Utu*. *An*=zerua, *Utu*=iduzkia¹. *Anuren emazte* bezala *Nintu/Antu* agertzen da. *Enlil, Anuren ordezkaria* da, *Enki, lurreko uinen ornitzaile, Inana, Anen alaba* eta *Utu, mandataria* (Ikus 1^a irudia). *Anu munduaren sortzaile* da:

“Anuk zeruak sortuaz gero, zeruak lurra eta lurrak, ibaiak, ibaiak ubideak eta ubideak, zingirak...”².

Anunnaku/anunnaki(a)=*ainaninoak* izan ziran *Anuk* bere tenploak etab. egin eta zaintzeko sortu zituen lehen izakiak³. *Anu* jainkoa herriaren sortzaile ezagutzen zuten euren buruei “buru beltzak” deitzen zioten sumeriarrek:

“Anuk (eta haren ondoren *Enlil, Enki* ta *Ninhursag*) buru beltzen herria sortu zuanean, landaretza ugaria erne zan lurrean eta abereak, zabalduko lauoinkadun sorkariak bizi izatea lortu zuten arteziaz⁴.

Anuk bere *antzera* eta *anzez* asmatu *makoa, Enlilen* arranbela⁵, jainkoen batzarrean aurkeztean, gizakien adua *Enlilen* eskuetan uzten zuela esan nahi du. *Narru* jainkoa eta *Mami*, erreginea ere *ama=mai=nai=madre*, ere ba dagerz bigarren belaunaldiko:

“*Narru*, jainkoen erregea, gizakien sortzailea, *Zulummarru* handia, euren onuran buztina zimikotu zuena, *Mami* gurena, haiek moldatu zituen erreginea⁶.

Anuk irazi zituan uriak eta jaietako erritoak⁷, lurrera jatxi zeneko

- 1 *Anuren* bidaldia *Utu*. Cf. *aino*=iduzkiaren sarrera, *nuntiu(l), mezulari*.
- 2 *Encantamiento del Dolor de Muelas*, I,1-6, ANET, 100-101
- 3 LARA PEINADO, F., *Poema Babilónico de la Creación*, o. c.p 111 (nota). Cf. *Anunnaku, -ku/-ko NONDIKO* genitiboan, *ainaninoko, amako, otsoko, mako*, edo zatikia adierazten *-ki Anunnaki, gizaki, oiloki, etab.*
- 4 *El Diluvio*, ANET, 42-44.
- 5 *Enuma elish*, VI, 86-99. Cf. *An+ko>mako/imago(l)=antz* (Ikus 1^a irudia)
- 6 *El Diálogo acróstico XXVI*, 276-279, DB.^on 26, p.84.
- 7 *El Diluvio* (I, 50-100), ANET, 42-44.

baten. Hammurabik *Enlilen* aduan sinisten du⁸, ez ostera zorigaitzak jotako errege Urnamnuk:

“An-ek aldatu egin du berba santua (...) Enlilek, esaneko asmo guztiak aldatu egin ditu malmuzkeriaz”⁹

Enki=“lurreko jauna”-ri jakinduria dagokio, eta jainkoen ta giza-kien arteko gora-beherak ebazten ditu, ugoldean eta sorkuntzan bezala. *Inana*, *Anuren* alaba, aitaren *me(s)*=aduez jabetu zan eta *maite* jainkosarena dagi, *Dumuzi(s)* giza jainkotuaren *emazte* bezala. Udaberriro inpernura jaizten da senar zendua biziberritzera, landaretzaren berriztea horrela adierazten duelarik¹⁰.

Nut(e)=“zeru *mako*” jainkosa *Ra(e)*=iruzkiaren *ama* da eta egu-nero edatzen eta irunsten du semea¹¹. *Maat* jainkosari izadiko jakinduria ta ordena dagokio: legea, zuzenbidea eta opariak, berak juskatzen ditu hilak Osirisen auzian¹². Obendurua, errua ukatuz zuritzen da, ezezkoak *natotik*=*mancha* garbi eman zezan.

Anum(a) *Amon(e)* “izkutua” bezala dager Tebasen, “airearen” jainko, eta *Min* koptarren jainkoaren *antzeko*. *Amon-Ra* izatera heldu zan. *Neter(e)*=jainko, *Netert(e)*=jainkosa esan nahi dute.

Nin-mara(s) *Mari* uriko jainkosa izan zan¹³, *Mari* euskaldunen ohiko jeinuaren izen berekoa, egiptiarra du bigarren arketipoa e-

8 *Las Leyes de Hammurabi, Epílogo*, p. 72, DB.nº 10.

9 *La Lamentación de Urnamnu*, 7-8, DB. nº 26, p. 73.

10 LIMET,H., “INANA(religiones mesopotámicas)”, DR.,o.c., p. 825).

11 PFISTER,D.,“NUT”, DR., o. c., p. 1293-94. Cf. “Eguzki amandrea/doa amagana/bihar etorriko da/denpora ona bada”. (Ikus 2º irudia)

12 CORTEGGIANI, J. P., “MAÁT”, DR., o. c., p. 1047. Cf. Euskaldunen *Mari* edo *Maiti* jeinuaren legea: “ez gezurrik esan, ez ostu, ez harrotu, ez inori uka dedurik”. Errudunak huts emandako onura haietaz gabetua izango da. Hagatik, *Mari* “ezaz eta baiaz bizi da”. Cf. “Aramean ere izan omen zan *Mer* izeneko Hodei jainkoa. (LIMET,H.,“TORMENTA(dios mesopotámico)”, DR., o. c., p.1761). Cf. *Mari* jeinuari ere halako zereginik egozten zaio.

13 *Nin.mara(s)*=“*Andere Mara*” *Mari* uriko zaindaria. *Mari* (K.a 3.000) Eufратres erdiguneko eskumaldean neosumeriar kultura eragite handikoa izan zan. (“SUMERI”, *Enciclopedia Cattolica*, o. c., p.1508).

ta *Maat* jainkosaren zereginera hurbiltzen da. *Anderetto/Anderexo* izeneko jainkosa dager *Ainamendi* inguruko eskein-tzarrietan¹⁴. *Andretu* berrien jainkosa dirudi eta *ander*(irland. zahar.)="andre gazte", *antroxo*(ga) ereduekin bat dator.

2.2. UTU jainkoaren sustraia eta mitologia

Utu(s)=iduzki, *tu(s)*=argi, *toros(g)*=claro, *tturi/txuri/zuri* eta *utul* formak aurrizki berdina dute. *Iduzki* egiturak, *Utukku/udug(s)* jeinuak bezala, *Uturen* partekide delako atzizkia du¹⁵.

"*Utu itoitu* zan, zeru-lurretan argia *edatzen* duena (...) Eroiak ontzi erraldoian sartu zituan bere *dirdirak*". (bartzardoak geureak)

Ziusudra jagon=*tutare(l)* zuan ugoldetik, *ttutxena=jus(l)* egiten dio *otoi* egiten dionari, *zuzena* egitea bai-dagokio berez *Uturi*:

"nire malkoak *aditu* zituan (...), bere *otoian* *edatzi*-hitzak (...) *udug* angeru jagolea jarri zuan bere ahoa zaindu zezan (...) jeinu zaindari-riak=*tutores utzi=otorgar* zizkion"¹⁶. (bartzardoak geureak)

"*Uturen* hitz *zuzenaz*, nik *zuhurtzi*azko erabagiak egokitu ditut *Sumeriari* eta *Akadiari* dagokien aldetik"¹⁶. (bartzardoak geureak)

Bidean=*odos(g)* doanaren ideko egiten da *Utu* eta *ostatua idoroten* dio *iduzkia* ostean.

14 SORAZU, E., *Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*, o. c., p.89. Cf. Atzizkietan -tu persona sagaratuaren eina adierazten du, *naditu*, *ilutu(s)*, *donadu*, *maritu(l)*, *andretu*, etab. formetan bezala Cf. *neteret(e)* "jainkosa" *Anderetto* arketipo bereaz atzizkituak dagoz.

15 "Utukku ezin ekidina Ekuretik itoitua". (*Luldlul bel nemeqy*, II 54, DB n^a 26 26). Ekur=infernu. *Utu* mendarteko *troketatik*, *zuloetatik*, *toilatik* *itoitu-ostuka* ibiltzen bai-zan eta bere sartu-urtenak *tukuz* zelatatze= *tutare(l)* *tutoreak*, ain *zuzen*. *Utu/Utukku*, *Otso/Otsoko* formen parekidetasuna. Cf. *Etoe=traidor*, *Tartalo*, *Idittu*, bezala.

16 *El Diluvio*, 205-209, ANET, 42-44. *Utu*>*eto/etoi* letorke *edura*, forma honek ostera, *traidore* dino *Tartalo* edo *Utukkuren* bati egoki zeitekiona, baina *Utu* bera *duin* eta *doahien* *udukutze*ko *uturri* dager Sumerian.

17 *El hombre y su dios*, 128-129, DB. n^o 26. Cf. *aditu*, *atotsi otoi*,

18 *Las Leyes de Lipit-Istar*, Epílogo, DB. n^o 15.

“*Tutuk* (...) *ostatua* gordetzen du (jainkoen) bidean, gizadia *sortu* zuan erukitsuak, bizia emateko *duin* bai-da¹⁹. “*Sorte* egileak zure aurrean ahozpez dira (...) *Zure* babesu erruz *edatzen* da herri *duztietan*²⁰.”

Akadian *Utu* jainkoari Shamash deitzen hasi ziran, baina *Utuk* behin eta berriro *itoitzen* du burua jakintza idazkietan:

“*Ama Utu edu* da, gizakia *edatu* du, *ottoa*, benetako *aita*²¹”.

An amaren antzeko da, *Utu aitaren eduko*. *Utuk ud/udda* gozoen *odia*, *ostadarra*=*zubia* eratzen du, bereak dira *iturriak*, *itosura*, eta *ud* gaziak=amara, *ostera*, amarenak, *Addu/Adar*=*Odoi* jainkoari egozten zaizkio *uddolak* eta *uddaren* onurak²². *Aton* “*iduzkiaren doru disditsua*” Tebasen gurtua izan zan, Raren seme, *Aton-Ra* izateraino, jainkoen bateratze ahalegina izan zan nonbait²³, arketipoak ere lekuko. *Atonek*, *tu/txu* eginez, *Shu*=*airea* eta *Tenuf*=*ezoa*, lehen bikotea *sortu* zuan²⁴. (Ikus 2^a irudia)

Utu *eduk* bere eguneroko *itoitze* eta *ittoteaz*, *Dumuziren* urteroko *joan etorriak otuazten* ditu²⁵. *Utu* *zuhurtziaren* jainkoa ere bada, *otatik othustan*=*oteando* denaren *sumoa* duelako²⁶. Egipton ere *Thot* deritso jainkoen eta gizakien ulerbiderako hizkuntza *sortu* zuen jainkozko idazkari *ospatsuari*²⁷. *Adapa etoiak* ez zuen *idoro*, hala ere, *zogitasunaz hilezkor* izatea²⁸.

19 LÉVÉQUE, J., *Proverbios de la colección sumeria*, I,86-87, DB. n^o26,

20 *Himno a Shamash*,40-61, DB. n^o 26. Cf. *tutamen(l)*=babes, *adu*=*sorte*, *txotx* egin=“echar en suerte”, *txotx*=“alkate makila”, *chus*=“antxinako nehurria”, *sos*=*dirua*, *jus(l)*=*zuzenbidea*.

21 *La enseñanza de Shuruppak* (258), DB.n^o 26, p. 50. Cf. *tiko*, *tokos(g)* *eddere(l)*=*edatu*, *otro*=“anaie nagusia”

22 *Enuma elish*,VII, 15-17;30-31;120. Cf. *udda*=*ura*, *uddola*=*uriola*, *hodei*, *odi*, *odos(g)*=*bide*, *idoi*, *ostots*, *ostarku*,

23 CORTEGGIANI, J.P., “ATON”, DR, p. 147-148. Cf. *doru*=*anillo*

24 MALAISE, M., “MITOLOGIA EGIPCIA”, DR.,o. c. p.1218-1219.

25 Ba dinotso Inanak *Dumuziri*: “Nire anaie Utu gabe, kalera urtikia eta beheratua izango zinateke” (*Pride of pedigree*, 6, ANET, 638-638).

26 *Himno a Shamash*, 21, DB. n^o 26.

27 PFISTER, D., “THOT”, DR, p. 1746.

28 *Leyenda de Adapa*,4, ANET,101-103.

2.3 RA jainkoaren arraka eta mitologia

Ra jainkoak gazte-aroko (h)arrotasuna galdu zuenean, gizakiak haren aurkako arramantzaz urten zuten:

“Hala gertatu zan...*Re* (...) jainkoen eta gizakien jainkoa izaki, gizadiak zerbait *irazi*=urdir zuten bere *aurka* (...) *Haren urentasunak* gizadiak bere *aurka irakinan ari zela, ohartu zan*”³⁰.(bartzardoak geureak)

Handia izan omen zan *Raren erra*=renkor eta *errabia*=rabia eta gizadia *arras* abarrikatzeko=*arrasar erabagia* (h)artu omen zuan. *Urrikaldurik, ordea, errua ordetu* zien. Izan ere, *Raren erraietatiko aurrak* garelako dino egitiar jakinduriak:

Gizakiak ondo *ornitu* dagoz jainkoaren *artalde* bezala. Berak egin zituan zeru-lurrak *euren amoriarren* eta *urtiki* zuan *uretako erraldoia*. *Airea*, sudurren bizirako egin zuan, *eurak* bere *eredukoak* direlako, bere (h)*aragitik urtenak*”³¹.(bartzardoak geureak)

Sumeriako jainkoak Egipton *aurkitzen* diren, bezala, Egiptoko *Ra errabiatuaren* aldakia dago *Erra/Girra* jainkoagan. *Errak* Babilonia *erre* eta abarrikatzea *erabagi* zuan, baina gero ezetsi³². Hala ere *Erraren erresuminak* aipatzen dira:

“*Girrak* (...) *erre* dezala *hire* izena eta *hire arraka*”³³.

Aruru ama jainkosak, beste gizaki bat egitea *erabagi* zuan, Anuk, Gilgames zela-ta, kontuak eskatu zizkionean:

“Buztin zati bat ebagi, gainera txu egin zuan. *Eremuan* Enkidu, guda-ria *eratu* zuan, (...) *Ninurta jainkokia*”³⁴. (Bartzardoak geureak)

Horus *Raren* bargazta zan, *Raren arrakasta* jainko *eredutik* giza *eredura* artaindu zenean. *Horusen oroipena* (h)*arganako e-*

30 *Rescate de la Humanidad de la destrucción*, 23, ANET, 10-11.

Cf. *erne*=oriri(l), *irazi*=urdir, *aurka*, (h)*aren*, *urentasuna*, *irakin*, *ari*.

31 *Instrucción del rey Mericaré*, 130-135, DB. n° 10. Cf. *ornitu*, *artalde*, *urtiki*, *ur*, *aire*, *eredu*, *haragi*, *urten*, *eurak*,

32 LIMET, E., “ERRA(religión babilónica)”, DR., o. c., p. 545

33 *Tratado de Asaradón con unos príncipes vasallos*, DB. n° 23, p. 72 Cf. *erra*, *erre*, *gar*, *gera*, *gorroto*.

34 *Gilgamés*, I, I, 30-34, DB. n° 7

raspena bezain handia izan zan³⁵. Sorkuntza teologia Amon-Ra jainkoari eginiko otoitzean agertzen denez:

“Oi jainko, zedorrek *eratu* bai-zendun zeure *ernamineko arrautza* jaiotza ezezaguneko *arrakasta*, berez *urteniko jainkoa*”³⁶.

Renenet jainkosa Egiptoko jakite eta *artearen* babesle dager eskribariengan³⁷. “*Arthe deo*” *irakurten* da Ainamendi inguruko jainkoen *iragarkietan*³⁸, *Urtzi*, Euskal Herrian, *Resef*, Fenizian.

2.4. ILU jainkoaren leinua eta mitologia.

Ilu jainkoaren *leinua* semitarra da, Ugariteko izkribuetan dager eta *El/Elohim* bezela Biblian. Anuren nazako diren *Enlil*, *Ninlil* jainko-jainkosek atzizki daroe bere arketipoa. Gizatuen mailan, berriz, *Enbil*, *Be´el*, *Ba´al*, *Ba´lu*³⁹. *Iluk* ez du erabateko sinbolorik, ez nora eta edonora (*h*)eltzen da bere *ahala*. *Hala* ere *lainoen laman*, *latxen* eta *lakuen* argitan=luz, *lurrean*, *lirdingan* eta *lezako ilunetan*. Beragandik hartu zituzten gerkerak, *la-*

35 MALAISE, M., “HORUS”, DR., o. c., p. 768-769. Shu eta Tenuf bikoteak, Nut eta Geb izan zituzten, Osiris eta Isisen gurasoak. Hoién (*h*)aur izan zan Horus “iruzki orzargia”. Cf. Oronzaro, *orena, hora(l), ordua, aurora, orue, orbe, ortu, hortu(l), oro, ori, auru(l), oroi, oratione(l)*,

36 CORTEGGIANI, J.P., “AMON”, DR, p. 62. Cf. *Era* bitako sorkuntza dager Egipton eta *erran, erron* aditzak dinoe, batean hitzaren *arteziak* eta betean *arrautza* sinboloaz adierazten dela. Hortik *errai, arraka, erro, arrakasta, ruah(h)=arnase, aire, erne, oriri(l), urten, etab.*

37 *La Instrucción de Dwa-Jeti*, 30, DB. n^o 10, p. 34. Cf. *Renenet* egiturak Ainamendi inguruko *Andrane* jainkosaren eredu berberak ditu. *Andrane* “*andre done*”, *Andrane* María=“Señora Santa María”=Andre Dena (MICHELENA, L., *Textos arcaicos vascos*, o. c., p. 16).

38 SORAZU, E., *Antropología y religión en el pueblo vasco*, o., c., p. 88-92. Cf. *Arbola iraunkorretan, arte, aretz, erez(h), araba(h)* jainko ereduz dagerz. *Herrien iraupena* adierazten zuten Egipton eta Israelen ere eta *herriko* legeak eta jainkozko itunbenak egiztatzeko erabiliak izan ziran han erea Euskal Herrian bezala.

39 COTHENET, E., “EL”, DR, p. 525. “ELOHIM”, DB, p. 555-556.

tinak eta erromanikoek *ilutu*>*elios/sole*, *luna*, *luz* egiturak eta euskarak, *ilargi/iletargi*, *laino*, etab.

Ugariteko herriak *Ilu* jainko "urtetsuaren" ordezkarietat Ba'lu *alyn(u)=alena* ezarri nahi du *lurrean*. *Ilu* Kotarurekin arma berezi baten arduratan dihardu⁴⁰. "*Hel* ezaiok hire makila eta baldarrari eta *lehia* adi nigana" (1.1 III 13). *Ilungia* asma dezala dinotso (1.1 III 13-27)⁴¹. Anuk Enlili eman zion arma bera da eta (ohar Zeus) jainko *lekutuen* arma arina=*ligera* benetan. *Ilu* Anaturi *lurrean liskarraren=lite* bila jali daitela *elekatzen* dio eta bakea golkoan eta *larrean* (1.1 II, 10-14), jaso dezala Ba'luren palazioa (1.2. III 7-11). Ba'lu, *Iluren* erabakien aurka jarkitzen da. *Liskarrean=lid=lucha* Yamuren mutilak abailtzen ditu. Ba'luk Yammu *Lehena ulzi* eta *hil* egiten du (1.2 III 22-26). Ataruk itxurgatu egiten dio "eta *elea* bere ahotik jalkiala, *lotsatu* egin zen Ba'lu, *Alaena*" (1.2 IV 27-32). *Ilu*, Moturen (*h*)*ilketa* jakitean, apaldu egin zan, sayaz jantzi eta *labanaz larranzi* zituan *hiletxorta* biak, matrailak *lazkitu=lazeriatu*. (*H*)*alaber*, Ba'lu (*h*)*iltean*, "Ba'lu (*h*)*il* da" (1.5. VI 11-23) *aldarrikatuz*. Anatu Ba'luren *alde ahalegintzen* da, haren *leraz lehiatzen*. Moturi *heldu* eta *albainaz* aztinduz (1.6 II 7-9) gero, haren okela belen *elikurako* (1.6 II 31-37) *largatzen* du. *Ilu* Ba'lugaitik *alaitzen* da (1.6 III 14), Ba'luren *lagun* da.

Ugoldea jainkoen erabagitzat jotzen zuten Sumerian. Enlilek gizakien zoria zuen eskuetan eta *latz* erabakitzen du:

"Gizakien *leinua* ahienatzeko (...) Anuk eta Enlilek agindu hitzagaitik (...) bere erregetzak azkena izango du"⁴². (baztardoak geureak)

"Enlilek erabagitzen du bietatik zeinek, Enkiduk *ala* Gilgamesek, *hil*

40 Ugariteko idazkietan *Lucha entre Ba'lu y Yammu, El Palacio de Ba'lu, La lucha entre Ba'lu y Motu* aipatzen ditugu testu barruko notetan, baztardoak geureak direla. Erritoetan antzetzeko sinbolodun ekintzak dira.

41 "Gizakiek *ulertzen* ez duten, zur eta harri arazoko den *ilungia*" dino, arranbelaren makoa eta jaurtingia adierazteko. Cf. oinastarri.

42 *El Diluvio*, 156-159, ANET, 42-44

behar duen: Enkidu da *hil* behar duena”⁴³.

Urnamnu erregeak *Enlilen* aduzko erabagiak salatzen ditu:

“*Enlilek* malmuzkeriaz *aldatu* ditu agindu-lege guztiak”⁴⁴.

Marduk da herriko *Enlil (illutu)*, Anuk eta *Enlilek* hari *lagatako* eskubideei eskerrak⁴⁵.

Ilu, Eloah(h), Elah(ara) dager eta *Elohim(h)* gehiengoaren kasuan “jainkoen jainko/jainkorik jainkoena” adierazten. Ezaguna zan Amarnan *ilania*=“ene jainkoak” forma ere. *Elohim* israeldarren jainko zaharra izan zan eta haren izenean dagerz idazki zaharrenak, Yahwek haren ordezkioak hartu zituen arte⁴⁶.

Ainamendi inguruan *Ilix* eta “Asto *Iluno*” izenak dagerz oroitarrietan⁴⁷, *iletargiaz* landa, *Elios(g)* eta *Luna* erromatar eremuan.

2.5. KA giza arketipoa eta mitologia

Ka giza eredia exerita, otoiitzean bezala, eskuak zabalik dager *geroglifikoan W* antzo, alfabetoan *K* zutiko dena. Hori da *gizakiaren kaizua*. *Ka* da *gizakiaren giharrak* eta haren *gorpuzkera* eta *gogakerari* izatea ematen diona. Heriotz ostean haren irudian=*imago(l) egonean gelditzen* da zenduari noiz *gehituko* itxaroran⁴. *Gizakiak* lurretik=*ki(s)*, *geb(e)* hartu du izate fisikoa. Horrela, *Enki*<*An*+*Ki*, “An lurrean=Anuren zatiki” da. “Benetako *ka gogara* dagoen baten *ka* da”⁴⁹. “*Gorputza* eta *gorputzaldia*=ánimo adierazten du, “*agonu* onean *egon*”, “*o corpo non me pide*”, “*gustora* egon, ”tener *ganas*”, “ez dut *gogorik*”, “*gaur* ez dut *ganorarik*” esakerak *gogarazten* duten bezala:

43 *Gilgamés*, VII, I, 10-16, DB. n^o 7.

44 *La Lamentación de Urnammu*, 9, BD., n^o 26, p. 73.

45 LIMET, H., “ENLIL(religiones mesopotámicas)”, DR., o. c., p. 541.

46 “ELOHIM”, DB, p. 55-556.

47 SORAZU, E., *Antropología y religión en el pueblo vasco*, o.c.p.88-92.

48 LÉVÊQUE, L, *Sabidurías del Antiguo Egipto*, DB, n10, p. 11.

49 *Las Máximas de Ptah-Hotep*, 11, 3, p. 18.

“asarre hitzik ez da errepika behar, horrek *ka* garrazten bai-du”⁵⁰. Jakite berak *guraso* aitari aholku *egiten* dio, *gorde=cuidar* dizala bereak “hire *ka-k* euretzat sortu-semea bai-duk”⁵¹.

Sagaratuen erritoan *kù-g(s) agonu/gogakerak* berezko santu=*hagios(g)* izatea *agertzen* du Sumerian⁵².

Lehenengo jainko-gizatuak atzizki daroe *Ka* eredua: Enki, En-sag, Ninhursag, Marduk jainkoek, Anunnaku, Utukku, Udug, etab. lehen sorkariak bezala: *Gero* aurrizki daroenak: *Qingu, Gatundu, Girra, Kura, Egalmag, Igigi*, etab. dagerz. Enki Anuren eskubidez dihardu munduan, baina *Qingu gailendu* egin zan Anuren aurka. Enkik *gizakia* berrizteko *Qingu* herio-zigortuz, “bera bakarrik *galduko* da *gizadia* bermolda izan dadin” haren odola nastatzen dio *gizaki* berriari⁵³. Marduk erregeak ere jainko *ganoraz ekiten* dio, behin jainkoen *kidetza* lortuaz=*ganar gero*⁵⁴.

Gizakia jainkoen *koskorra=cacho* bezala *agertzen* da, *-ku/-ko/-ki* atzizkiek adierazten duten bezala. Horrela, Enkidu “Ninurta jainkoaren zatiki” da, *giza* formarena *gizaki* den bezala⁵⁵.

Giza gurenetan Gilgames da aipagarriena. Izadiko jainkoen erabakiez *gogaiturik*, norbere *gogoko/gustoko* jainkoen pentzudan jarten du bere *kasketa*⁵⁶, hilezkortasunaren bila:

“Goazen *E.gal.mah*, (...) erregina handiagana, Ninsun, zuhurra, oro jakituna, berak eratuko du *gure* pausoentzat *egoki* den bidea”⁵⁷.

Gero, Enkidu lagunaren heriotzaz etsipendurik, hilezkortasunaren bila urrutira doala, ba dinotso Utanipistini:

50 *Ibidem*, 7,5, DB. n^o 10, p. 15.

51 *Ibidem*, 7,15. Cf. *crear, gatzatu, gertatu, gauzatu, cuajar*,

52 RIES, J, “SAGRADO -2. La expresión de los sagrado en el mundo sumero-babilónico”, DR., o. c., p. 1577-1578.

53 *Enuma elish*, VI, 13-36. Cf. *Gingu, ginga, gangar, gaindu*,

54 *Ibidem*, IV, 27.

55 *Gilgamés*, I, II, 35,

56 *Ibidem*, II, V, 212.

57 *Ibidem*, III, I, 15-18.

Esaistak behin ze *gizatan* lortu=*ganar* hendun jainkoen batzarrean jesartea, hik betiko bizitza jaritsi hendunez⁵⁷. (bartzadorak geureak)

Girra=Gibil "sugarraren jainkoa" Nergal eta Ereshkigalekin infernuan dihardute⁵⁸. Ipu-ur emazteen *agortez* arduratzen da:

"Jadanik emakumeak antzuak dira eta ez dira izortzen, *Khum*-ek ez du *gizakirik* sortzen herriaren *egoera* dela-ta"⁵⁹. (bartzardoak geureak)

2.6. BA giza belauna eta mitologia

Ba materiatik ate dagoen giza hastapena, gorpua *bizkortzeko* gei dena da eta *berriro berak* nahi duen eratan argira erakarteko *boterea* du. Heriotz ostan ere iraun egiten du. Jeroglifikoetan giza *burudun* txoria da⁶⁰. (Ohar *Fenix*) *Bakarrizketetan*, "*ba*" dinotso *bere buruari*, "ene *ba*"=*bada*, *baita*, *barne*, *pneuma(g)*:

"Ene *ba*, *bizitza* honetan *bagea* arintzeko ez *bai-zara*(...) *Bizitza* *ba* dator eta *ba* doa, arbolakino *beheratzen* *bai-dira*. Hona *bak* esan zue-na: Ez ete *zara*, *ba*, *gizaki* *bat*? *Bizirik* *zagoz* *benetan*, *baina* ze *probe-txu* ematen *dizu* *bizitzak*? *Nik* erantzun *nion*: *Bat* ez da *fan*, *baina* dena *galdu* dut"⁶¹. (Bartzardoak geureak)

Ka gorputz-gogakeran *bezala*, *Ba* *baitako bulkoan*, *pentzakizun-ean*, *buru-bihotzen* *barneratzean* da. *Berez* da *bizia*, *bios(g)*, *begi*, *belarri*, *beso*, *bulardun*, txoria=*ave*=*paro* *bailitzan*, *hegan*=*volando* edo *pausoka* *abiatzeko*, *fateko*=*partir* dena. *Fatea*=*vadere(l)*, *barkan* sartu eta *Nilo* *ibaia* *igarotea* da *berea*.

Ba-u/Ba.ba, jainkosa *beratx* eta "*burubeltzen*" mediku ongilea ezaguna zan Sumerian⁶². Akadian *Haddu/Hadad* da, *Hodei/Patu* jainkoa, Erroman *Fatu/Fata fatu(l)*, *hado/hada* ezagunak⁶³.

57 *Ibidem*, XI, I, 7-8

58 *Enuma elish*, V, 85-88.VI, 50-55.

59 *Las Lamentaciones de Ipu-ur*, II, 3-4, DB. n° 10. Cf. *kume/ume*.

60 LÉVÊQUE, L, *Sabidurías del Antiguo Egipto*, DB, n10, p. 11

61 *El diálogo desesperado con su ba*, 19-40, DB.,26. Cf. "ene,*ba*"!, *Ene bada!* "*Batek/banek ez daki...*" formak etab. euskarak bizian gordetzen ditu.

62 LIMET, H., "BA-U(religión sumeria)", DR, o,c,p.117

63 "HADAD", Dic.B., o.c.,p. 797-798

Menfisko teologiak *Ptah* jainkoa jainko sortzailatzat dauka:

“*Bihotzaz* lortu zuan izatea (...) *Ptah* handiak jainko guztiei *bizia* eman zien (...) *bihotz* honi esker (...) horrela sortu zan *bihotzak* eta mihinak gorputzaren zatiki *bakoitza* jaurritzea, jainko eta gizaki guztien gorputzean eta *aboan bera* dagoela erakutziatz”⁶⁴. (*baztardoak* geureak)

Kanaanen *Babel/Beel/Ba'lu* “jaun” titulodun eta *Ilu/El* jainkoen ordezkariak=*validos* ezagutzen dira⁶⁵ toki *bakoitzean*, Egipton *Parau(h)/Faraon bezala*. *Apophis Apsu(a)=abissu(l)=putzu=abismo=Su.ap(s)* infernuko antxinako Erensugea da⁶⁶. Marduk *Apsuren* kontrako garaipena lortzen zuan⁶⁷. *Humbaba*, Sumeriako *Basajauna*, erdi jainko eta erdi gizaki zan, *Gilgamesek* eta eraso egin zioten, haren *basoa ebaitekoz*:

“Argia (*Shamas*) aurretik *Humbaba* jainko bezala zan, baina orain *Shamasek* ha azpiratzea emango digu⁶⁸.”

2.7. SHE giza jatorria eta mitologia

Giza ganorak, gorputzaz eta baitaz=pneuma=arimaz gain, zer besterik behar zuan osoko *izateko*? Berez zeukan *izateak* baino *segurantzaz* zehatzagoa ekar zezaiokena: erritoaren zertzeaz *zid(s) izatea*⁶⁹. *Jainkoagandik eskuratzen* zuen *santu* maila *txit zehatza*. Berari *esker*, egonean barik, *izate=esse(l)=ser=istemi(g)* berrian, ots, *jainkozko-eztituan*, (*h*)*asiberriak* izenaz batera lortu ohi dutena eta tenploko *jainkoaren* aurrean *eseri=asier(f)*, edo *xaiki=stare(l)* ahal *izateko eskua* ematen ziona. *Sagaratze* mailan lortzen du *esku* eta *esker* berezia, *eskui-ez-kerrak* goradi otoitzean *eska* dagoen *gizakiak*.

Haraz gero, *jainkoei eskeinitakotoki sagaratuek* giza ereduak

64 *La Teología menfita de la Creación*, 35-55, ANET, 4-5.

65 “BAAL”, DB, P. 189-191.

66 GILLEMETTE, A., “APOPHIS”, DR., o. c., p. 112. Cf. *apo/ sapo*

67 *Enuma elish*, I, II, 1ss. Cf. *Su-ap(s)/zubi, Apsu(a)/potzu/potxu*.

68 *Gilgamés*, V, II, 1-15; IV, 1-7, DB.n^o7.

69 RIES, J, “SAGRADO -2. La expresión de los sagrado en el mundo sumero-babilónico”, DR., o. c., p. 1577-1578.

dituzte aurrizki, baina gehienetan *She*+*Ka* txorta egiten dutela. Hala *Zikurat*, *Esagil*⁷⁰, *Saqqara*, Gizeh, *Ezida*, *Esharra*. Jainko gizatuak, *She* eredu hartzen dute *atzizki* edo aurrizki: Ni.*Saba*, *Ninhursag*, *Nanseh*, *Ashtar/Ashtarte* jainko-jainkosak, etab.

Hator, maite-jainkosa *Sekhmet* da, apentza adierazten dueneko, *Utu(s)*, *Shamash(a)* da, *Inana*, *Ishtar/Ishara* dira norbere ereduko jainkosa direnean⁷¹, Inko Jainko lez, eta *Hera*, *Asera*. *She* aurrizki duten jainkoek *jakite* berriko jainkoak dira. *Shamash(a)*=*Shamsu*(amorrit)=*Sams*(arab), *Shapash(u)*, *Shipish*⁷² da Eblan. *Shara*, *Inanaren* alaba, honek infernutik *jaregina*⁷³. *Osiris* eta *Isis Asar* eta *Aset* ere deitzen dira eta *semetzat* dituzte *Horus* eta *Shet*, bata ona, bestea gaiztoa, *Mariren* Atarrabi eta *Mikelatz bezala*⁷⁴. Egipton *Sia* deritxo jainkozko jakinduria jainkotuari⁷⁵. Aranen *Xekina* da jainko *etxetiar*, *Idumean*, *Shadad*⁷⁶=*Shadu(a)*⁷⁷, *Israelen*, *Yahweh*, *Eskual Herrian*, *Jainko*. Ba dagoz, *Shedu* bezalako zaindari onak⁷⁸ edo *Satan* eta *Seth*⁷⁹ legezko deabrutuak eta *Azag*, *Sarrabu* gaizkileak ere⁸⁰.

70 *Zikurat/zaqaru*=“gorantz ereikia”, *Ezida=Esagileko etxela*, *e.sa*=“tenploaren bihotz”, *ki.sal*=“kamera-aurrea”, *kitux*=egoitza.(LIMET, H. “ZIGURAT (religión sumeria y acadia)”, DR., c., p. 1856-1857).

71 “Ishararentzat ogea antolatu”(Gilgamés, II(30), Versión babilónica antigua, ANET, 72-79, 83-90, 92-97, 514-515). Cf. *Ixara/izara*, *star*=*izar*.

72 LIMET, H., “SOL (religiones mesopotámicas)”, DR., o.c. p. 1673. Cf. *Utu*>*utul*, *Ra*>*erre*. eta *Shipish*> *zipili* dakarte berez.

73 LIMET, H., “SHARA”, DR., o. c., p. 1642. Cf. *jaregin*=askatu.

74 SORAZU, E., *Antropología y religión en el Pueblo Vasco*, o.c., p. 279.

75 *La enseñanza legar, II*, DB. n^o10. Cf. Ohartzekoa da: *Sia(e)* “conocimiento” eta *scio(l)* “conozco”.

76 “Akadiako iragarkietan *Yaum izena* ere ba dager, jainko denik edo haren goitizen gabe” (“YAHVÉH -Antigüedad”, DB, p. 2054-2058) Cf. *Yaum/Jaun*, *Jainko* <*Jaun*+*Inko*.

77 *Shadu*=monte, “el elevado”. Cf. *xaso/jaso*=elevado, *saxu(l)*=peña.

78 *Shedu* tenploen eta *etxe*-palazioen zaindaria, *Lajamu izakien* antzera (*Enuma elish*, I;10) (N.del T.)

79 MALAISE, M., “SETH”, DR., o. c., p.1642. Cf. *seta*, *setatsu*,

80 *El Diálogo acróstico*, XXIII, 244, DB.n^o26. Cf. *zarrapu*=arañazo

ONDORENA

Zazpi arketipoen izenak monosilaboak dira, konsonante bakar edo errepikatu direla. Jainko arketipoen seme-alabak, oster, aglutinadoak dira, nor arketipo biren ezkontzatik sortu izan bailiran, sendi bateko gurasoen izen-abizen ezberdinak seme-alabei bata besteen jarraian egozten zaizkienean bezala.

Eskontzak sendi birekin bat egiten du. Horrela Egipton Sumeriako jainkoak Amon-Ra, Aton-Ra arketipoekin ezkontzeak, jainkoen batasun ahalegina adierazten du, lurlean ere erresuma biren batzea haietako printzeen elkargoaz egiten bai-zan.

Arketipo biak jainko mailakoak badira, jainkoen lehen seme-alaben ertaldiko direlako seinale da: jainko hilezkorrak dira eta zerua da euren erreinu. Arketipoak giza ereduez nastuak badira, hirugarren-edo ertaldikoak direlako seinalea da: jainko hilkorrak dira eta euren erreinua lurlean edo iburnian dago.

Ka- materialtasuna adierazten duen giza arketipoa jainko arketipoen aurrizki jartzeak jainkoen ordena gainbeheratze asmoz hartu zan eta, beraz, herio zigorrerako duin. Ba- edo She- giza arketipoek, batak apalgoaz, besteak jainkoengandiko duintasun bereziaz, ohore egiten zien, oster, jarraiko jainko arketipoei.

Arketipoen kokapen horrekin osatzen ziren izenak eta izenak arketipoez esaten zuena egiztatzan lurlean. Hortxe agertzen zuan gizakiak jainkoen sendiko izan nahia eta horrela adierazten zuan, hizkuntzaren bidez, seme-alaben izen-abizenak gurasoekikoa adierazten duten bezala.

Lehenengo izadiko jainko arketipoak izan ziran, arik eta gizakiak izadi barruan bere nortasuna eta kokapena ezagutu eta bere arketipoak jainkoekiko elkarrizketan lekuko aurreratu zituen arte. Kokapen horretan gailentzen dira mitologiako kontakizun eta jakinduriaren azalpenak.

III. MENDI SANTUTEGIAK EREDUEN ARABERA

3.1. Mendi santutegiak AN narearen arabera

Jeroglifikoetan AN arketipoak zero eta mendien arteko ertza antzezten du eta horixe da gero ere *N/M* alfabetoak bere gorabeheradun marraz iragarten duena. *Mendiak* urratzen dute *Anen* zerua, *mendiak andiak*, ots, *Anuren majestateaz antuak* eta mandoak dira (Sal 24,3). “Berak manutzen zuan...menditik”¹. *Mendiak* edo *mortu amaigabeak mugatzen* dute *Anuren magala*. *Mailadiz-mailadi* edo *malkorrez-malkor Anuri ñaka* eta *men egiteko mendira* igoten zenean. *Mendiek Anu maite* dute, eta *Anuk mendiak*, geroago Yahwek bezala² (Sal 95,4). Sumeriako lautadan, *mendirik* ezean, *Etemenanki(s)*=“zeruaren eta lurraren arteko oinarriak”, edo zigurat³ deitu eraikintzak, egin ziran tenplotzat. Bustinaz egindako *mendiak* ziran Jainkoaren temploa zeukatela *montorrean*, zero erako *mako* ta *guzti*. Jainkoaren hurbiltasuna bilatzen zuten. Euskaldunek, gure *mendien nausitasuna* ikusirik, *AN Inkoaren omenez*, *Ainamendi* deitu zioten hako “*montes primordiales*” *mendi andien* goraintzian. *Ainamendi/Montaine/Montagne*⁴ edo *Añomendi/Montaño/Montiano*, *Unamendi/Mendiune*, *Unanuamendi*. *Ainamendi* inguruko jainkoetan bar “*Ande*”⁵, badu *Andamendi/Andamon/Montand*, *Mendiandia/Monte-Andía*, *Anieto-mendi/Mondoñedo/Mont-*

1 *El Diluvio*, (44), ANET, 42-44. “temenostik=menditik”

2 NOTH, M., “MONTE DE DIOS”, Dic., B., o. c., p. 1299.

3 LARA PEINADO, F.L., *Introducción al Poema babilónico de la Creación*, o. c., p.63-64. Toki sakratuei tenemos(g), *mened(eire)*, *met(bretoiara)* zeritsen. (LOICQ, J., “CELTAS Y CELTOROMANOS”, DR., o.c.,p.292).

4 Berdin al da “*Monte de An*” ala “*Montana*”, “*Monte de Anu*” ala *Montano/Montiano* deitzea? Euskararen oroitzak ez zuan *onartu* halakorik.

5 SORAZU, E., *Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*, o.c., p.89-92. Cf. Toponimian *Antia=Ande/Ataina=Athenai* bihurritzen da. Ate=portu goitarra dinoena.

Anet, Anderetto/Anderexo jainkosak *Andramendi, Antxo* geinuak *Antzomen-din*, beste ereduez nastean dager *Mari* ere *Murumendi/Montemuro/Miramón, Maya, Maxmendi*, orobat *Anboto-mendi, Inarramendi/Montaner, Eneriomendi/Montenero*, giza ereduez aurrizkitu dager *Nabú(a)* jainkoaren oroz *Nebo-mendi, Unbemendi, Uncilamendi*, etab. *Munoetako* santutegiak *Amón* egiturakoak dirudite *Munandia/Andamon, Amunartea, Unamuno, Monchili/Kilimon, Munitibar/Ibarmunu, Mundaka/Agamunda* eta *Argamón* izenetan, *Montu, Urtemondo, Ormondo, Munduate, Motu, Muzumendi, Inana, Nainarrimendi, Inarramendi, Mamendi, Mapemendi*, etab.

3.2. Mendi santutegiak UTU eduaren arabera

Mendi tontorrek zeru ertza jotzen edo erkingua adierazten dute. *Iduzkia* urten orduko, *tontorrek* sutan dagoz, eta begien bistatik sartu ostean ere, eguzkitan diraute zati batetan. Nondik ostuten da iduzkia edo nola zulatzen ditu mendiak, zeharkatzen itsosokak? Gilgames sarrakioak hartzen zuan zoria ikustean:

“Bikoitzak” deritson *tontorrera* heldu nintzan, -haiek bai-dira *Iduzkiaren ostu-itoitzeak* egunero zaintzen dituenak, haien *tontorrek* zerua ikutzen=*tocan* dute eta azpitik euren bularrak infernua-“(…) *izugarriak* dira, euren so egitea, hiltea!”⁷. (baztardoak geureak)

Mendian *iduzkiaren* zaindari eta *idduen* eta *otsoen tokiak* dira, *idia=uddi.ah(s)*, berriz, *iduzki-adorearen iduri*. *Tutozulo* bezalako *tokizenak* mito hau argitzen dute. Mendion izenotan *iduzkiaren itu edo otoi-ikuspegiaren bat idoroten* dugu. Horrela: *Otoimendi/ Momoitio, Otamendi/ Montoto, Udamendi/ Montouto*,

6 “NEBÓ”, Dic.B., o.c., p. 1327.

7 *Gilgamés*, IX, II, 1-10, DB. n^o 7, 51. Hori dela-ta, mendi zuloak, *toilak, atolladeros, dolinas iduzkiak* eginiko bidetzat=*odspos(g)* edo *oditzat* emoten ziran. Sumerian Zagros mendartetik *itoitzen* zan *iduzkia*, harek ziran *Tartalo* eduko *etoi*en *tokiak*. Cf. *Iddituek* ikustea bezala, edo *otsoa* eduko *pisti* uzuak. Cf. *atolladero, tollo, zulo, troka=trocha, torca, dolina*. Analogiaz, berriz, *tutu, tuzulo, uzku/uzki*, etab.



1^o irudia: An sendia: (ezkerretik eskumara) An, Enki, Utu, Inana, Enlil. Anek Enki, ud gozoen antolatzailea, bidaltzen du lurrera, honi sorbaldatik erreka bi darizkio, Utu=iduzkia mendi atartetik/tartetik itoitzen/ateratzen da, haren berotan Inana, maite jainkosaren eskutiko frutaki mordoia soldutzen da. Enlil, mako eta gezidun, gizakien adu-erabagile dager. Uturen adore eta yoritasunaren uduriko uddu.ha(s)=idia=toro eta uzu iduzki goi-bideen=odos(g) eta udden gaineko Jainko espirituaren iduria rabinoen eskolan. Cf. usu/uso Biblian ere agertzen den iduri ezaguna (Mt 4,16). Leoia Enlilen lagun da eta honek atzizki daraman arketipoak osatzen du.(Seilu baten iduria (2.300 K.a), *Historia de las civilizaciones*, Vol.I, Larousse, 1996, p. 54)

touto, Atamendi/ Mendata, Isomendi/ Itxumendi/ Menditxu', Ixuamendi/Sumendi/Zumendi / Montessu, Osmond/ Somonte/ Ostemend, Uxamendi/ Izamendi/Izmen dia/ Mendiz/ Mendixa, Auzmendi/ Mendoza/Oxamendi, Ajumendi/Montajo edo beste eredu kin Durmienda/Mondor/Montorra, Iturmendi/ Mendixur, Trokamendi/Mondorge, Mandoño, Otxemendi/ Mendotza, Tuturmedia, Tutuliamendi, Otabiomendi/ Mondobi, Itxurrotzmendi/Mendizorroza, Sumendi/Montessu, Udalamendi, Tolomendi/Tollomendi/Montoliu, Soromendi/ Montessori, Iturmendi/ Montoria/ Manduria, Atumemendi/Montón, Otoimendi/Ituñomendi, Zubimendi, Sollube-mendi, Domentx/ Donimendia/ Mandoino, Digomendi/Mendiko/ Mondogo, Ajurramendi/ Montejurra, Izarmendi/ Mendizar, Tella-

mendi/ Montella, Oderiaga-mendi, Atxarte-mendi, etab

Ainamendiko santutegian *idoro* diran jainko izen batzuk errepika dute mendiren baten. Hala “*Tulonio*”, *Toloino-mendi/Monte-Toloño*, “*Usseis*”, *Ossamendi/Montosa*, “*Idiatte*”¹⁰, *Atxetamendi*. Mendiaren santutasuna (Sal 24,3) aipatzen dute *Donimendia/Montón/Monzón*, *Donienemendi* egiturek. Eredu bere-tiko beste jainko izenak “*Ixun*”¹¹, *Itxunamendi/Montesino*, “*Tinia*”, *Itxina*, *Txindoki*, *Monte Sina*, “*Adar*”, *Adarmendi*, etab., giza ereduari lotua *Tabor-mendi*¹² santutegia,

3.3. Mendi santutegiak RA ereduaren arabera

Atun-Ra jainkoak kaosa astinduaz, lehen munoa=*oros*(g) sortu zuan. Piramideen erainkintzak horixe bera adierazten dute. Ra jainkoari egin lehen piramidea Saqqara da. *Haren* eskailerak Ra jainkoaren bidera eramaten zuten¹³. Han ez zegoen beste munorik Ra gurtu ahal izateko. Saqqara/Eskara egiturak bat datoz. Bera gogoratzen du Eskaramendi/Sacromonte eta Saqqarako eskailerak Eskaleramendi/Montescalier. Eskalerrian jainkoegana-ko eskailerak berez eginda egozan, Eskalerria nolabait jainkoek sagaratuta zegoan mendien ugariagatik. Euretara *ereduko* dira: *Armendi/Ramonte*, *Arramendi/Mandarria*, *Armendu/Men-*

9 Tu>Du>Zu/Su- egiten du, *Tollo/Zollo*, *Dole/Sola/Zola*, *Ottegi/ Otxegi*, *Attela/Atxela*, etab. egituretan bezala.

10 SORAZU, E., *Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*, o. c., p. 89-92. Cf. *Tutozulo* bezala, *Idiate* ere tokizena da, *Idituek* hango geinuaak. *Idi Uturen iduria*, *Itxinako zilokan* bezala. *Idittuak*, ahotik su urtika, izugarri omen ziran. (Ibidem, p.298) Cf. Ohar *iduzki* atearen jagoleak. (*Gilgames*, IX, II, 5-10, DB. n^o 7). *Pisti usuen* artean *Uturen eduko otso=tsobu(ast) Otsomentegi*, *uso Usamendi*, etab. *Ate/atte/atxe/atxa* dator.

11 . Eskerrak Ixun-en oharrari, *Errak ez zuen erraustu* Babilonia. (LIMET, H., “ERRA(religión babilónica)”, DR., o. c., p. 545)

12 “TABOR”, Dic.B: ó,c.p. 1819. Cf. *Tabira* zan *Tammuzen* izengoitia.

13 LAUER J., Ph., *Le mystère des pyramides*, Paris, 1974 en CORTEGGIANI, J. P., “PIRÁMIDE”, DR., o. c., p. 1413.

daró, Erremendi/ Monterre, Raimond/ Monterrey, Montoro, Oruemendi/ Mendaru, Orimendi/ Monte-Ori, Urramendi/ Montorra, Urremendi/ Mendaur, Iremendi/ Mendiru/ Urtemondo, Urremendi, Arramendi/ Mondarrain, Airamendi/ Mendiaria. Beste ereduez nastean dager Mari ere Murumendi/ Montemuro Aratzmendi/ Mendaraz, Aratiamendi, Arizmendi/ Mondariz, Urkamendi/ Mondorge, Arolamendi/ Manterola, Arrolamendi¹⁴, Ergamendi/ Mendraka, Montreuil, Erginamendi, Arzenamendi, Atxerremendi, Artxubemendi, Artxueta-mendi, Aratzamendi, Urkila, Urkiolamendi, Argaramendi.

Ainamendiko jainko iragarkietan agertzen diren izenak ba dute erreplikarik, "Arthe", "Aereda"¹⁵ Artamendi/ Monterde/ Momarte eta beste arketipoen atzizkiekin batean, "Erge", Ergamendi/ Monterrega, "Erle", Erlomendi/ Montreil, Urzi¹⁶, Orzomendi, Urkomendi/ Mondorge, Horus, Orusemendi/ Orizmendi/ Orrizmendi, "Erditse", Artasamina, Aherbelste". Beste jainko ereduen atzizki ere badator: Adar, Adar-mendin, Larramendi, Elur-mendi, Monte-Abril. Giza ereduekin naste, Barramendi/ Monbar, Beramendi/ Vermont, Hermón, Aseramendi, Garamendi/ Garamond, Garramendi/ Moncarra, Garomendi, Egurmendi.

3.4. Mendi santutegiak ILU leinuaren arabera

Uli/Ili eta *Uri/iri* bizitokiei izena ematean, elkarren lehiakide izan ziran antxinatik Iberian. Edukin bereko dira, ez eredu bereko. Zenbait *latxen* izenak ere bere *leinuko* dira. Baina gure ardurakoak mendien izenak dira: *Uliamendi/Mendilu/Montoliu*, *Elamendi/Montella*, *Olamendi/Mendiola*, *Lainomendi/Montel-*

14 *Arroil*, *arruak* eta *barranak Ra iruzkiak* infernurantz eginiko bideak omen ziran, berdin arpe, rajas, rendijas, Utuk hako trokak, torkak, tolo, atolladeros, dolinas eta zuloak bezala.

15 SORAZU, E., *Antropología y religión en el Pueblo vasco*, o. c., p. 88-92.

16 "Codex calixtinus del s.XII, Cf. MICHELENA, L. *Textos arcaicos vascos*, o. c., p. 49-51

ano, Larramendi/Monreal, Lorraine-mendi/Monte la Reina, Alumendi/ Lumentxa/ Mendilu, Monte Luzero/ Luzeromendi, Montolan, etab. Elohim egiturak Aloinamendi/Monte León¹⁶ formatan du hurrean, Labiamendi. Ba'lu, ILUren ordezkari alenak ere "jainko mendira" (1.2 I 20) igon nahi izan zuan¹⁷, Alen mendian. Ba ditu bigarren mailako mendiak Belamendi/Belmonte/Montevalle, Bellomendi/Montebello, Villamonte, etab. Aina mendiko jainko izendegian eredu honetakoetan "Ilix"¹⁸ dager Elizmendi/Monselice, "Alar", Alarmina/Larramendi, "Lahe", "Loxa", Mendiluze/Mont-Luz-Ardiden, "Iluno", Lunomendi, Ilunzarmendi, "Iluro", Mendilur, Mandaluniz, "Larrason", "Alardoss" edo beste ereduekin nastean, Letamendi, Lekamina, Lekamendia, Lakozmonte, Legizamon, Legarmendi, Egata-mendi, etab. Beste batzuetan artizki dager: "Selatze", Etxelumendi/Montecillo, "Ivilia", Mendivil/Villamonte, Zelatun, etab.

3.5. Mendi santutegiak KA eduaren arabera

egia=*verdad* benaz eta ongia="el bien". Raren ontzira=*barca* eginik, *Bak Apophis Iburniko* Ersuge apotzarraren aboa=*bucca(l)* itzuri=*vitare(l)*=evitar nahi du. Pisuak pisatzen du: *bat*, *behin*, *bi*, *bost*, *bederatzi*, (*h*)*obeto* banatzen *bega(h)*, *beca*, *bota*, *pote*, *bara*=*vara*, *barra*, *braza*=*beso*, *buru(s)*, *fanega* pisagarri eta *banakarriez*. *Bat*, *batek*, *berak*, *besteak*, *berendiak*, *fulano*, *ipse(l)*, *potxua*, *women(al)*, *femina*, *homine(l)*. Euskarak *Ba* giza eredia hartu du zenbakietan lehenentzat. *Ba* honen *filosofia* sakonki *barneratu* zuen, ez/bai *baga*.

4.7. Sinboloak eta erritoak SHE arketipoaren arabera

Ka arketipoak ekur(s) mendi temploan ekuru/*segurua* izan zuen bezala, eta Ba arketipoak piramidean, *She* arketipoak erri-tozko *Zikurat* santutegian *santu* izate txit zehatza eskuratu zuan, jainkoari *esker*. Harrezkero temploa *santutegi* edo toki *sagaratua* da, *Shaharu* deritso Sumerian *Zikurak/Esagil santutegiko* tenploari edo *Saqqara* Egipton lehen piramide handiari. Ka arketipozko Ekua(s)=oiku(g) formek "egoitz=casa" ekarren bezala eta Ba arketipoak bit(s)=bet(a)=baita, *She* arketipoak *etxe/etze* ekarri zuan, *Ezida(s)*, *Esharra(a)* tenplo/*jauaregi* izenetan bezala, *espazio* xedatu, *zehaztu*, *jaso*, *zeharkatu*, *zenbatu*, *izen-datu* eta *ezaguna*.

Bereziki *etxean*, *etzaleku*, *zelaru*, *sala*, *cella(l)*, *celda*, *eskaratz*, *eskepe*, *izkina*=*eskina*=*skena(g)*, *eskola*, *eskilara*=*escalera*, *eskantzu*, *sabai/sapai*, etab. bereizten dira, *estia(g)* egiturak *estancia* dakar, etab.

Joan-astia *aspaldi* da, *aspaldion* gaurkoaren aldean *jarriez* gero. *Aste*=*sema(g)*, (*h*)*astetik* dator, lehen aldia aipatzeko, *atzena/azkena*, *azagako*=*zaguero* dan bezala. *Asterik* *aste* *doa* *astia*, *jaiegun* edo *astegun*. *Zazpigarren* egunak=*sabbat* *asebete*=*she*-

29 RIES, J., "SAGRADO-2. La expresión de lo sagrado en la religión sumero-babilónica", DR., o, c., p. 1577-1578. Cf. *txit*=enteramente, muy, *zietz*=exactamente, *esku*="derecho positivo", *ezker*=gracia.

8^a eskema: UNE, ALDI, ZENBAT, NOR, ARKETIPOEN ARABERA (1)

	ANU	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
NON	an aindi ona/on inon	donde oste sub tras	or arriba ur urrun	allí allá longe lejos	ubi/ibi post bertan hemen	hic gain gertu aquí	asau zeruan cerca zehar
NOIZ (1)	antxina ancien nunc nunca inoiz	odie atxina atzo tunc atzo	ora orain arin eri arkhe	luego olim lein aliquando laster	belu bein bart postea bihar	cuando gero cum gaur goiz	jam/ya atzen jamás ayer sero
NOR	en/ni mi/no inor nos nemo neure mengano	tu tto su zoin zu su/zure zutano	er eurak (h)ar ura ark euren urlain	ille/él le/la lui los/les alter illius lagun	bera vos beste hic hako hek fulano	ego/yo gu cui quién ek gure guidam	txe/je zer ése/éste zein se/ses sfon sandia

(1) -ina/-in/-im amaitzen diren hitzak ereduaren norentasuna edo gehientasuna adierazten dute.

bu>shabbatu(a) daroa *astea* eta *Yahwéhk atzedena* hartu zuan (Has 2,2-3). *Zapatua Yahwehri eskeini*-eguna da, *anutu(s)*, *ilutu(s)* Anu, *Ilu jainkoei eskeiniak* ziren bezala. *She jatorriko* dira *Azaro=sementera* eta *septe=zazpi zenbaki sagaratu* eta *sakratuaren zeraz*, *September(l)=Septiembre*, *septimana(l)*, *semana=aste* ere. *Aizaro=Eguren Santu* gaua. Ohartzekoa da *aste/dies(l)*, *atzekoazurrera* jositako egiturak, *zazpi eguneko astia* adierazteko *izenak*. *Astelen*, *Astearte*, *Asteazken*²⁸=Eguasten *asteko* egunen lehen *izenak*. *Xaz/iaz*, *etsi*, *as*, *astiro*, *azkar*, *zearo=semper(l)=siempre*, *sero(l)=berandu*, *atzo=ayer*, *sarri=saepe(l)* Gizakiak ez zeukan *jainkorako* duintasun zehatzik, haien aurrean ahozpeztan edo *eskarietan* belauniko egoteko-edo *izan ezik* (Sal

28 Hortik euskal *astea* hiru egunekoa zela uste izan da. *Astelen* "Asto Ilunori" *eskeinia* zan, *Astearte*, "Arte/Arthe" jainkoari bezala.

9^a eskema: ERRITO HARREMANETARAKO ADIZKERAK ARKETIPOEN ARABERA

ANU	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
indak	to/tori/toma	ereik/orzu	lege	opa/offer	iguk/ekan	eskein
emak	otso/eutso/ten	erak/erok	laga	pon/ipini	koi/coge	txek/txen
onaik/onain	tziauri/toz	erdu	el/eldu	ven/venez	korri/currere	zatoz/sar
enaugi	joa/zoaz	orden	alde/allez	vade,vete	(h)augi/ago	sal/jali
mugi	tolle/tate	erun	eleva/lleva	fer	goazen	jatxi
eme	eutxi/dale	erosi	lortu/lograr	bil/bildu	ekan	eskura
mintza	di	errak	loquere	fala/habla	grita	esan

95,6). (H)asiberrien erritoak emango zion hatarako *santutasun txit zietza/zehatza*, *zi-d(s) izateak* adierazten duan bezala. *Zi-d(s) izateak*²⁹ gizakia *jainko-santutasunaren* partekide egiten du, bateatu-berri den umea “*izaki berria*” bezala. *Izen berria ezarten* zaio eta, *eskerrak* egiten duena bera egiten du *jainkoegazko hitzarmenak*. Hagatik-edo, *She* ereduaz adierazten da *hizkuntza askotan* nortasuna: *izan=istemi(g)=esse=ser*. *Izan* ere, *ez-kerrak zi-d* horri, bat *Jainkoaren* aurrean *eseri, essere(it), stare(i), xaiki su-stutzen* da. *Jadanik* gizakiak Anuren mendua ba zeukan, *ezteietako estaia=estola(i) jantziz* gero, ordea, *eztitu-be-rri* gelditu zan, ots, *txertatu=sertatu(i) zi-d(s) santu izate* berri *txit zehatzean*, *zarama* dena, *estali=stratu(i)* egiten dela (Sal 32,1).

“Ni naizena naiz” *Yahwek* Moiseri *esana* (Urt 3,14). *Jadanik ez ziran jainkoei eskeini-opariak* edo egin-otoitzak bakarrik *izango*. Gizakiak norbere *izantasuna seinu=sinboloa* mitoraino *jaso* du, *jainkoekin* bat egin eta haien zoriaren partele *izatekotan*. Horduan Eanna edo Etemenanki *izen zaharreko* temploen ondolan *Esagil, Saharu, Eziskur; Zikurat, Santutegiak* eraiki ziran Sumerian, *Esharra* Babilonian, eta *Saqqara* Egipton. *Santutegiok Jainko santutzailearen etxeak ziran* (Ez 37,28).

Tenploen *izenak*, hitzetik ortzera, giza nortasuna *sagaratzen*

29 RIES, J, “SAGRADO -2. La expresión de los sagrado en el mundo sumero-babilónico”, DR., o. c., p. 1577-1578. Cf. *txit, zihetz/zehatz*.

dute *jainkoen* aurrean, “apaiz erreinu eta enda *santu*” eginez, kristau Liturgiak dinonez. Herri *sanoa*>*sanatu*>*santua*, legeak ere baieztatua=*sancitu(l)*>*sanctu*=*saindua*. Marduk errege-jainkotuak *Esharra jaso* eta *jainko* gurasoei bazkaria presta zien. *Atsegindu* zirenean, *Ezida* kaperako=*chappelle(f)* erritoak bete eta arauak erabagi=*sancire(l)* zituan. Dagoneko, ez da Anu erri-toon irasle bakar, gizaki *jainkotuak* ere bere gisara antolatu nahi du *jainkoekikoa*, *zintzoak* aitortzen duenez:

“Eskariz joan nintzan *Esagilara* (...) Ugaltasunaren Atadian *Zarpanituren* oina muinkatu nuan”³⁰. (baztardoak geureak)

Eska dihardu, *esca(l)* eskatzen, *janaria* edo *sanatzea*. *Eskarietan* esku biak *jaso* eta *eskutik eskubidea* datorkio, *ezkerraz*=*izquierda eskerra*=*kharis(g) jaristen* du. *Eskatzeko*, *eskaini* zerbait aurretiaz. Tenplo-Palazioan gorde-emakumeei *sekretu(s)* deritse, *azterlariek* ez dakite euren *zeregina* zertan zan. *Segere-tua* nonbait, edo *etxeak eskeintzen* duen *seguroa*=*securu(l)*. Emakumea *sinixtu(s)* zan, ausaz *Sin(a)*=iretargi jainkoari *estua*=lotua edo hari *sinesten* (*zinez esten*) *zitzaiona*, *axxatu(s)*=*etxandrea*, *ixiotua*=*excitata(l)*=izorra, nonbait.

Sumeriarren apaizgoan=*sacerdocio* *ashipum(a)*=*araolaria*=*exorcista*, *iship(s)*=*ishipum(a)*=*xautzaileak* *ixipua*=*hissopu(l)*=*ezob(h)*=*hissopu(l)* astinduaz ekiten zion *asakku(s)*=*azag(s)*=*á.sig(a)* bezalako gaitzak xaintzen, *esane*ko *eskaintzak*=*sadu(s)*, *sattukku(a)* eta ganinerako *iskinak* jasotzen zituzten.

Asakku=*azag* deabruak ez ustez erasoten omen zuan buruan, *azaga* zekarkela berekin. *Eskarietan* *siskur(s)* “*eskarietako eskeintza*”. Hoietarikoa izan ziteken *xiskor* deituak ere. *Jai*a<*xeia* *Sedeq*³² *etxekoen*=*estirpe* apaiz *serbitzaz*=*servitiu(l)* ospatzen=*celebrar* zan *Salem* urian. Harrezkero, *Elohim* eta *Adonai* doneen dominotik *jaregiteko*-edo, *Yau/Yaum(a)*³, *yaon*=*jaun*=*seniore(l)*=

30 *Ludlul bel nemeqi*, IV, 46, 60 en DB. n^o26.

31 LIMET,H., “*DEMONIOLOGIA*(religi3n sumero-acadia)” DR., o. c., p. 416-417.

32 Dic. B., “*SADOQ*” o.c., p. 1762. *Sedeq jainkoa* ere ba zan nonbait.

jatorriko izen berriek *asmatu* ziran³³. Lehendabizi *She jatorri-dun=estirpe jainkoei* eman goitizenak izan zitezken, gero *etxeko jaunari* egotsiak, edo bestelaz. Eurotariko bat *Yahwé/Yabé, jabe/jaube* da eta Inko *etxekotua*, berriz, *Xainko/Jainko* Euskal Herrian eta *Shekina* ³⁴ Aramean.

Jainkoari dagokio *Jauntza* eta *Jaunerriari Jauna* eta *Jainkoa jaurestea*. *Saddai Jesraelen, Jainko* gure artean. *Santua* ez den *Satan*, lehenago Jainkoaren mezularia izana, gero deabruen buru eta *santuen salatzaile* eta *saltzaile* agertzen da

Biblian³⁵. *Zebatu=etxekotu* da, baina bai eta *cibare(l)=cebar, jeinhatu=saginat(l)=sainado=zaindu* den bezela. Oharpenezko adizkera berriak sortzen: *txetu, txeik/txein/txezu, jainko jatorriko hitz asko eskuratu* egiten ditu azken giza ereduak eta *She seinuaz seinalatzen, izenaz batera izana* ere aldatzen dutelarik: *Anu/Jano, on/jaon, Ino/jeinu, Inko/Jainko, arduera/jarduera, arre/jarrai, enda/jende, iritxi/jaritxi, etorri/jatorri, telu/stilu(l), erun/etxaron, aldatu/azaldatu, etab.* Ba ereduari ere *espiritua* ematen dio: *biri+tu/asperatu, virtu/spiritu(l), be/espe, ba/jabe, Bat/Jafet, ekuru/securu(l)=seguru, etab.*

Etxeak eztitu sekale=centeno, eskanda, "segete"(l), ezkur, "espezieta": sagar, sagardo, sachara(l), cerbeza, txermen, aza, azanoria, eskarola, azelga, esparrágo, espinaca, etab. Etxeak eskuratu abereetan: *asto, zamari, zaldi, cheval(f), zekor, txakur, txahal, txarri, cerdo, etab.*

Bereak dira *zeia/zejako* hainbat zehaztasun eta zenbaki: *sei/xei, zazpi, xehe, as(l), xeme, xemeiko, zato, zatiko, zaku, sakel, shege(h), siklo, satukku(s), issaron(h), celemín, etab.*

33 "YAHWÉH-IV-Antigüedad", Dic.B., O.C.,P. 20544-2057. *señor She*

34 "SHEKINA", Dic.B., o.c., p. 1812. Cf:Ohartzekoa da *Xekina/Xainko* arketipo berekoak direla. *Xekina <skn(ara)=habitar "etxekotu".*

35 "DIABLO", Dic.B.,o.c.,p. 465-468

ONDOREA

Unea eta mendea filosofoen untzea izan ohi dira, baina giza jainkozaleak ondo bereizten zituan jainko uneak eta giza abaguneak. Gizakia errito bidez egiten zan jainkoen antxinako menden partele, giza gunek jainko unea duelako oinarri eta antxinako unea gogoratzeak gordetzen du halakoa gaurko gunee eta egunen igaduratik.

Hitza, edukina eta ekintza arketipoen sinbolo eta hotsari lotu doaz. Mutuak keinuz bezala, hitz ahozkatuak sinboloen soinuez adierazten du edukina, imuzinoa eta mintzoa direla erabat, izan ere, mithos(g), imitatzean bai-datza.

Sinboloen hautapenean bat etozen antxinako Sortalde Hurbi-leko herriak, nahiz eguzki sinboloei, adibidez, hotz ezberdinez deitu. Sumeriar erritoek, bere literaturak bezala, arrakasta handia izan zuten, indoeuropear sarradak ere ezin izan zuten zeharo suntzitu halako argi-arrastorik Anatolian eta Grezian.

Sinbolo eta erritoetako hitzetan ikusten da argien jainko eta giza arketipoen nortasuna, ots, nor noren pentzudako zen eta zenbateraino zen askea giza arketipoa, zenbateraino menekoa.

Jainkoekiko errito eta harremanak aldare edo mahaiko opari eta jakiekin zerikusia zuten. Jainkoekiko bazkaria adizkidetasun seinalea zan. Denetan gizakia dager Jainkoen serbitzari, ereguz eta erreguz, jainkoen onginahia eta mesedea erakarri nahiez, gizakia dela eskeko eta jainkoa dohai emale.

Erritoen garapena honetan datza: gizakiak izadiko beste izakien erdian bere kokagunea aurkitzean, Jainko Egilearen seme-alaba sentitu eta hagazko ituna egiteko lain izatean.

Erritoaren legeak betetzen ziran orobat hitzen taxukeran eta goralpen deietan edo, hizkuntza osatzen zen einen, eskari landuagoetan, gramatikak ere ereduazko "oraciones" erakasten zituela.

V. EUSKAL ETNOGRAFIA ARKETIPOEN ARAUZ

5.1. Euskal etnografia AN arketipoaren arabera

Euskarak gorde ahal izan duen jai ospakizunaren oroimen sakonena *Anu* jainkoaren *Anum.zaru(s)*="Anuren sorkuntza"=*Ononzaro/Onenzaro* deitua izan da, *ain* zuzen ere, gero kristauiek Kristoren *Nativitate(l)*=*Navidad*=Jaiotza ospakizunerako darabiltena bera. *Anuren*=sorkuntza, herriaren jaiotzaz lotzen zuten sumeriarrek, eta *Anu*=zeruaren sorrera zetorren Jainko Semearen Jaiotzaren berri *eman* eta ospatzera, *Anuk* bihaldu-Utu=iduzkiaren *aino* "oste" berrindartua *neguko* urte-*mugan* ospatzen bai-da. *On/onen* izatea ere *Anuri* dagokio, *Onenzaro* forma horrela dakusanarentzat.

Anu ereduak *ino/oino* ohiuzkoetan eta *ino/oinonka* aditzak, *oinote*, *oinolari* hitzak, *ino*, *ainuri* bezala *maiz animaliei* egotsi-*marruak*, eredu bereko eta edukin beretsukoak dira. *Ononzaro* *Inoteak* errito beraren hasiera eta *amaia ematen* dute, jaiok Sumerian hile osoa irauten zuten zuzen gero. Goralpen *inoak/um-nou(g)*=(*h*)*imno* alde batetik eta arren *inote/oinoteak* bestetik.

Inote/Inaute/Inoteriak: Otsileraz gero, Elizak inoiz bedeinkatu ez dituen *inoteak* ospatzen dira. Urteko *anoa=annona(l)* zan herriaren ardura bizia eta *Anu* jainkoa *inoz* eta *inoka* ereguz *mimatu* behar zan, *inozoak* eta *inudeak* aurretik zirela. *NORK inutu=nutrir* behar zuen herria, *Anu* jainkoak izan ezik? *Ino=mindurika* bada, *inote*="mindurika-garaia" da: *Ino!=Yinko Jaun!*, *inoka*=arrenka, erromatarren *ambarvaliako* litanietan bezala, *inoka*="kexuz eta buruari eragiten". *Inudeak=iñudes=nodrizas* *Anu* beraren *inutze* lana darraie, baina *inozoak*, *enkeinuz* edo *engainuz*, ohiko *inuttu/anutu(s)*, *Anu* jainkoari *emanak* bezala, *Anu enoiatu* edo haren *enoiuak=enojos nasaitu* behar zituzten. Euren *ino* eta *imintsioakaitik* itxurgatzean, esangurea ere aldatu egin zitzairen. *Inaut/çut ena!?* esaten da, bestalde,

iduzkiak bero tholsa agintzen duenean. Ospakizun biotan nabari dago *Anuren* jarraileen errittoa *Anu inoz* eta/edo (*h*)*imnoz* aitor-tu eta eregutzekoa dela. *Antroxoxo(ga)*, *Anderexo* bezala, *andretu* berrien eta urtearen *introitu=entrada* bide da.

Inka/Inko: *Inko Inoren* partekidea da egituraz, haren semeko baillitzan, seme gizatua, alegia, *Enki(s)* "lurreko An" den bezala. *Inkori inka* egiten zaio otoitz. *Inkaz* jardutea "con *ainco*", ekitea da, gaztelaniak ere soinu beraz bai-dino; *inka-minka*, "*Inkori inka* eta lanari *minki*". Arazo *inkoniagarriak* dagoz, egotez. *Inkoniatzaillea* ezezaguna denean, nor da *inkoniatzaillea*, nor erruduna? Galdera honek Joben jakituariara bidaltzen gaitu.

Ainen, ainanino: *Inka* egiturak *ainenka* du kontrako, *aienak aiena* bezala. *Ainaninoak* *Anu* jainkoaren angeruetarikoak izan ziran: *anunnakku(a)*, *anunakene(s)* eta *ainaninoko* deitu izan dira gaurdaino *ume* bihurriak. *Ainen=maldición*, *aineneko=maldito*. *Marduk* jainkoak zeruko eta lurreko *anunnakiak* banandu zituan, bere arerio Tiamaten alde urten zutelako². *Anunnakiok* langile bikain izan *omen* ziran, Esharra, haren tenploa, eraikitzen, tresnak asmatu eta arriluak egosten³. Eraikintza harrigarriak egotsi zitzaizkien *anunnakuei* hako "Kastrejanako zubia" ipuinetako *ainaninoei* bezala.

Inguna izakiak, amets gaizto, *mamurru* edo lagun ere esan *nahi* du. Otoitz batek "*Inkoa* ta *Andre Maria*" hartzen ditu euren kontrako lagun. *Anxo* ere izaki *nozigarrien=maléfico* artean aurkitzen da, gizajale *nonbait*, eta ba du *Antzomendi* izeneko santutegirik. Biak ere *Inkoren nazako* izakiak eta haren *mandatariak*.

Oinetsitu/oinestu/inisitu, *oinestarri* *Anuren inkesak* dira *ma-koa indarrez* estutzean, *oinestarria* bera ere jainkoek urrunetik

1' *Anunnaki/Anunnaku* forma bikoitzak dagoz, hala dirudite *Enki/Inko* ere

2 *Enuma Elish*, VI, 39-50.

3 "*Anunnakiak* lanabesak egokitu zituzten (...), harrilluak landu (...) Esagila jaso zuten" (*Ibidem*, VI, 59-64).

jaurti dezaketen arma bai-da, “gizakiek ulertzen ez duten zur eta-harri arazoa”³ alegia. (Ikus 1^a irudian *Enlil mako* eta gezidun)

Ama-manua=matriarcalismo: Anuren alaba *Inanak* aitaren *me* erabakiez jabetuz, haren *menduaz manatzen=manda* dio Dumuzi giza *nareko* senarrari. *Nor nagusi* eztabaidatzen zuten, ea zeinek *emarazi* behar zuen. *Inannak inon* dinotso Dumuziri:

“*Neurea* da (iriko) *manua* (...) Ez dut *manua amaren* eskutan=*mano* utsi, ez gobernua=*mando* (*Enki*) *nebeari laga*”⁴. (bartzardoak geureak)

Enki, Anuren seme eta *Ninhursag amak* ere aita eta alaben arteko *nabastarrea* garbitu *nahi* izan zituan behingoz, Sumeriako paradisuan⁵, *andreak* hartzen zuela sendiko ekanduen ardura.

Amengan dager, *Anu* jainkoaren giza *enda* ugaltze-lana eta berezkoa da *amaren manua* seme-alabengana luzatzea. Etxeko eskola ere *amarena* da. *Amak* erakusten du hitz egiten, “*ama* hizkuntza” esaten da, jakinduriaren lorpena ere “atsotitza” da euskaraz. Esakerok biribildu eta erakusteko, *amomak* du ardura eta zuhurtzia. *Ama-manua* edozein kulturaren *unea* izan ziteken, baina euskara lekuko berezia da *monosilaboetan*: *nai, ama, ño, anaia, aina, aña, man, men* bere errepika ta guzti, *mama, mami, niña/o, ñeñu, naina*, aglutinadoetan: *maite, nadiu(s), nintu(s)=andre, amatu, amatto, amado, neba, andere, nagusi, anabi, amatxi, amona, amabortze, ambitxi, amarratu=amarrar, amarru=amaño, amatigo, neska, mutil, mende, mando, menpe, mancipiu(l)=mancebo=morroin, mirabe=ancilla(l), etab.* Guzti hori da *amaren* berezko *manu* eta erresuma, *amaren marka* daroana eta *amaren umontziak* eta *magalak* dakarrena.

Mari: *Nin.mara(s)*=“*Andere Mara*” zeritson *Mari* uriko jainkosari. Bere janzkiak, sumeriarren *modakoak*, bolantaskoak ziran, *Inanarenak* bezala. *Mari*, neosumeriarren garaiko uria eta

3 *Lucha entre Ba'lu y Mōtu*(1.6 VI 25),MLC.

4 *Courting, Marriage, and Honeymoon*, 20-30, ANET, 639

5 *Enki hand Ninhursag: a paradise myth*, ANET, 37-41.

kulturaz bai ekonomiaz ospetsua izan zan inguruko herrien artean.(3.000 K.a)⁶, Eufatres eskumaldeko erdigunean kokatzen zan Ohar *Nin.tu*, *Nin.mara*, *Ninhursag* jainkosen izenen arketipoak, zein baino zein luzeagoak. Denak dira sumeriarrak, baina *Mara* egiturak egitiarra du azken arketipoa. *Mari/Meri* izena egitiarrek izentzat *maite* izan zutena egiztatzan da hango idazkietan. Harri-garria ere ba da izen hau gure *mito*-ipuinetako *Ambotoko Mari-iren* izenarekin bat etortea eta, areago, jainkosak bezala, izadiko *indarren* jabegai agertzea.

Maat=Maiti: Egipton Ra jainkoak *Maat* jainkosari egozten zion gobernu goitarra, gizakien zuzentasuna jakinduriaz ebatzi zezan. Bereak ziran gizarte-jardukerako aginduak egiztatzea, *Maat* bera bai-zan, azken baten, Osirisen epaian gizakien biho tzak pisatzen zituena⁷. *Mari* edo *Maiti* euskaldunen jainkosak ere bere aginduak eta epaiak zituan:

“ez gezurrik esan, ez ostu, eman-hitza bete, elkar lagundu, kontu harrotzeaz eta lagunurkoei errespetoa galtzeaz...”(..) “Gaizkileak egin duenaz eta huts egin duenaz beraz zigortuak izango dira”⁸.

Hagatik, “ezaz eta baiaz bizi naz” bizi zan *Mari*, gaizkileek huts *eman* edo hutsean baieztu *ondakinez*, arean. *Maat* jainkosaren epaitegian arimak itzuleztara aitortzen zituan bere pekatuak: “Ez dut ostu, ez dut inor hil...”⁹ etab., ukapenaren *magiak* berak pekatua desegiten zuelakotan. *Antza* denez, jainkosa biok dute *magiaren* eragina, baina ez dira, nonbait, artezi berdinekoak. *Mariren* senarra *Maju*<*Mattu omen* zan eta *Mari Maya*<*Mattia*>*Maide* ere bai *omen* zeritson, mendien santutegiak ere egiztatzan dutenez: *Mairumendi*/*Mayamedi*, *Maxamendi*, etab.

6 BERGMANN, E., “SUMERI”, *Enciclopedia Cattolica*, o. c., p. 1508.

7 BOURGET, P., “EGIPTO(religión.-La moral)”, DR., o. c., p. 524.

8 SORAZU, E., *Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*, o. c., p. 290. Cf: (BARANDIARÁN, J. M., Op. Comp., I, 344-429) Cf. *Maat/Maide* formak elkarrenak dira, *Maat/Mari* kultura beretsuko jainkosa direnez.

9 CORTEGGIANI, J.,P., “MUERTE Y VIDA DE ULTRATUMBA EN EGIPTO.-El juicio de los muertos”, DR., o.c.,p. 1257-1259.

Marti/Martu(s)/Martio(l)>Marzo jainkoaren izena ere ondo txertatua gelditu zan gure kalendreran eta hizkuntzan. Ba du Akitaniatik *Ainumendira* gurtua izan zen *Marte* jainkoarekin zerikusirik. *Martu*=*Amurru mortuko* jainkoa zan Sumerian¹⁰ inoiz Hodeiren *amorruekin* parekatua. *Marti* udaberriko baratzaren *ongile*, *Martintxu* lanabesen asmakari trebea eta *Marte*, berriz, *medikutzan* aritua, erromatarrek guda-mutil izentatu aurretik. *Marti/Marzo* eta *Mayatz/Mayo* elkarren ondoren. *Maiatzean* ospatzen zen *neskatto* berrien plazaratzea, “Fiesta de las *Mayas*” *Nafarroan* edo *Mayatz-aretza*=*Mayo* plaza erdian jasotzea¹¹. Jai honek ba zuan *nerabe*-jendea, *morroinak* eta *neskaxeak*, gaztaroan, otoz-otoan barik, halako erritoen herri-eskolaz eta abegiaz gizartean egoki sarrarazteko asmo ederrik.

Mamau=Mamu=Momo: *momo*=loaren *inguru* sortu lolagun jainkoa edo irudikizun bildurgarriak dira. *Momoak*=loak, sikologisten arauz, hasiera bateko *mundu* sakonera eramaten gaitu, Babiloniako *mitoak* bezala.

“Apsu loari *emonda*, etxunik zegoela, *Mummu*, bere laguna, ezin zan *mugi*”¹². (baztardoak geureak)

Horixe bera gertatzen zaio loak hartu>lokartu dagonari, *Momoak* daukalako eta *momoak*=loak beretzat hartzen duena, haren inguruko *mamauak/mamauak* eta *mamuskoak* eta *momorroak* ere har lezake. Ipuinok *umeen* loaren *inguru* iraun dute eta, berez, ez da *ama-umeen* harremana baino giro hoberik, *anxinako* izadi-jakinduria bizirik iraunazoteko.

Malatu/Malato zuhaitza: “Bizkaiko Foru Zaharrak”¹³, VI legean, emanten du horren berri, *Nafarroan* ere antzeko ohituraren bat aipatzen omen da. Lege horrek *antxina* bateko ohitura aipa-

10 LIMET, H., DR., o.c., p. 63.

11 SATRÚSTEGUI, J., M^a, *Mitos y creencias*, o.c., p. 70-72.

12 *Enuma elish*, I, 66.

13 “MILICIA, SEÑORIO DE VIZCAYA”, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, o., c., vol. XXVIII, p. 343.

tzen du eta, ohitura-lege horri ezker, bertako gizonak herritik ateko gudarizatik jaregin gelditzen ziran. Sumeriarren jakinduriak ere ohitura-lege berdina aipatzen zuten nausitu-berri erregeen burruketatik jaregin gelditzeko:

“Sippar, Nippur edo Babilonia gudara deitzen ba ditu eta aldarriz lan eta gudura behartu, Marduk, jainkoetan jakintsuen den onulariak, etsaiari emango dio halako erregearen herria; haren gudariak lanera behartuko ditu etsaiak, Anu, Enlil eta Ea jainkoek (...) -batzarrean erabagi bai-zuten bere jendeak halako beharretatik aske zirela”¹³.

Marduken garaitik *Anuren mendera milaka* urteren alde dago, baina sumeriarrek idazkietan eta oroimenetan gordetzen zuten euren jainkoen eskutik lortu-ohiturazko legea. Sumeria bezalako *nekazari* herria, bakezalea zan kulturaz, jainkoen batzarrean erabagia baino beste legerik ezagutzen ez zutela, edo eta eurek burujabe izan zireneko garaiak aipatzen dituzte atzerriko errege berriei erantzuki. “*Printzeari oharrak*” deritson idazkiak herriaren aldeko ohitura-legea aipatzen du, jatorrizko ohiturak edozein printzeren arrandi gainetik ezarriaz. Euskaldunek ezer besterik egin ote dute *Malato-Zuhaitz* horren *mitoaren* izenpean? *Malatu* ereduak aztertuez gero *An+Ilu>Enlil* silua erakusten du aurrizki. *Malato(it)*=gaisoa edo, kolpatu izan denagatik, *mailatu-uneak*=xegunak=seinaleak agirian dauzkana. Bestalde, *Enlil* bera zan giza aduaren esku eta *Enkidu*, Gilgamesen laguna, erio-gaisoaz eritu zuena ere. “Jainkoa eta Lege Zaharra” asmoak biltzen duen politika ere xede zaharreko txingarrak dago, eztalakoan ere, Jainkoagazko Itunbena garaikide den edozein “printzearen” eskakizunen gainetik jartzen duelako.

Andana, Enten: *Andana*=uzta da *An+Utu* arketipoez taxutua. Ba dago *Enten* izeneko jainko bat, *Enlilen* kidea eta berari dagozkio, *ain* zuzen, “uzta ugaria *ematea*”.

13 *Advertencias a un principe en forma de presagios*, 25-31, DB. n^o 26, p. 58.

5.2. Euskal etnografia UTU arketipoaren arabera

Subilaro: Neguko iduzki-muga Anu eta Utu sendiko bien batzean datza, Ononzaroz *Subilaro* ere ospatzen delarik. *Iduzki* hilduari laguntzeko, neguteko *iduzki*-mugan *otza uxatzeko subil* berria *ixiotzen* zan, *izurriak uxatzeko joaleak jotzen* ziran, *Subil ixiotuak urte duztian* irautea zan asmo, bertatik eguneroko *sua* biztu ahal izateko. Hatarako *subazterreko autsaz* estalirik *edukitzen* zan¹⁴. *Sutondoko* berotasuna basoko *zuhaitzak* gordetzen zuten *iduzkiaren* ordekoa zan. *Subilaroz tokor=tronco* berria ebaki behar zenean, *zuhaitzari* baimena eskatzen omen *zitzaion*¹⁵, *zuhaitzak*, berezko izadi *duztia* bezala, jainkoen arlo zirelako, jakinduria zaharrarren arabera eta, hagatik, Basajaun *eduko*, jainko *ttikien* ardurapean egon ohi ziran.

Su/suari Utu=*iduzkiaren eduko* mandataria bailitzan, *otoiak* egiten zitzaizkion *supitu=suplex(l)*, batez ere, norbait etxekotu behar zenetan, *ots*, etxerako *sagaratu -tu* atzizkiak adierazten duen lez. Hatarako *sutearen* inguru bira bat *edo* beste emanarazten zitzaion, nor haren atxikitasuna *zihurtatzekotan*. *Sua-ganako* txera="amor a la lumbre", Gabon-zuzi sinbolo harenganako jaiera eta ohikuna ezin ulertuak lirake, bertan Jainko-maitasunaren sakramentalakoa *idoro* ezik, Mezkirizko emakumeak aitortzen duen bezala; "Truditzen zitzaute Jaungoikoain amoriua bezala iduki behar ginuela etxean"¹⁶.

Sua ta *udda* *Iduzki*, ezoa eta beroa bezala, *Uturen* emaitzak ziran, baratza *jori* egiteko. Biak beharrezkoak, baina kontuz erabiltzekoan. "Ura eta *sua* belaunetik berakoa" esaten zan, biak ere sorkari *usuak/uzuak* direnez; *izua edo zorigaitza sor* zezaketelako *ustegabe*an. Ardurazkoa zan gero arrautzei *subil* ikatzaz kuru-

14 Horretarako *suaren* ingurua errito berezia egiten zan, gauez "etxeko *sua* etxeko *autsaz* estal zazu", edo ezer gaiztok "ez piztu ez itzali" zezan. (SATRÚSTEGUI, J.M^a, *Mitos y creencias*, o. c., p. 91-93).

15 AZKUE, R. M^a, *Euskalerraren Jakintza*, I, o.c., p.91-95.

16 SATRÚSTEGUI, J.M^a, *Mitos y creencias*, o. c., p. 91.

tza markatzea, *txitoak osasuntsu* urten zezaten¹⁷.

Urte berriz *uddak* berriztu eta lehengo eukiak kanpora jaurtizten ziran *Dohostin*, jantziak *udolean=torrente* garbitzen ziran. *Uturri/iturri* batzuk *done=santu uzena* daramate, hala *Doniturrieta* Aralarren.

Zubi/Adar/Ostadar, *Utu=iduzkiaren edu* eta agerpen ziran, ur goienak eta ur barrenak ornitzekoz. *Uddak* iragoteko *odi* bitxia benetan eta haro onen iragarle edo *itunaren otugarri* (Has 9,8-15). *Utuk itoitzen=subir* zituan *zubi=adar=uztai=ostadar odiaz uddak otara* eta *Adar(a)=Odoi=Odei* haren jainko-lagunek *uddolak* eta *zopernak sortzen* zituen, *osti/ostots* artean¹⁸.

Zubi harrigarri horren petik igaro zeiten emea ar bihurtzen zan eta alderantziz, arra eme, ur goieneren edo gozoen, partele gizona zelarik eta ur barrenen edo gazien partele, emakumea¹⁹. Uren ornitzaile izateak *Uturen zubiari/adarrari* seksuen *zori* banatzaile ere ba zela adierazten zuen. *Sumeriako Dilmun=paradisuan* jainkozko giza bikoteak *Tutu* jainkoari *zuzentzen zizkioten otoiak*, *Tutu* bera zelarik hango *argi=tu(s)* eta giro *tonpor*²⁰.

Itosurak izan duen babesa ere hortik *sortu* da, Inanak dinoen bezala, *“itosura* estaltzen duenak, beretzat estaltzen du *itosura”*²¹. Hagatik *itosurean* egortzen ziran haren pean jaioak.

Teilitu, *Mari Yonagorri* : *Telitu(a)=ahaltsua=Utu+Ilu-tu*, Ishtar jainkosari eman *tituloa* “Hammurabi Arauen Atarian” agertzen denez. Euskal Herrian, *Teilitu*, *tokizena* ezeze, Mari hagin zaindaria da, hagin jausiaren ordetan berria eskatzeko, *teilatura* urtikatzen zitzaion hagin zaharra, *otoitz* hau esanez: “Marije *Teila-*

17 AZKUE,R.M^a., *Euskalerrriaren Yakintza*, I,o., c., p. 100.

18 *Adar=Adad*, (“ADAD”, Dic.B., o. c., p. 18)

19 *Apsu(a)/Su.ap(s)* eta *Tiamat* bion elkartetik *sortu* omen ziran jainkoak. (*Enuma elish*, I,10 (Nota) Cf. Ohar *Su.ap/Apsu* eta *Tiamat/Amatia* egituren *itzulia*. *Amatia>Amaya/Maya*, *mayin(h)=uddak*.)

20 *Enki hand Ninhursag: a paradise myth*, ANET, 37-41.

21 *Pride of pedigree*, 29, ANET, 637-638

tuko, gonagorria/*eutsi* hagin zaharra ta ekazu barria”.

Tuturro=toca: Lehen emazteek kono *edo adar eduko*, *tuturroa=tourin(f)*, *tturia* eroaten zuten burkotzat. Antxinako moda honen zergatia ezin igarri izan dute etnografia zaleek. Ez zan Euskal Herriko arazo bakarra, baina, beste ohitura askok bezala, XVI.garren gizaldiraino gure artean iraun zuan. Halakoxe *tuturroaz* estaltzen zuten burua *Sumeriako* jainko-jainkosek eta Akadiako Shamashek=*Utu*, orduko *idurietan* agertzen denez. *Zubi=adar* antzeko *tuturro* hori *Utu* beraren babesa esan nahi zuan. Emakume *izorra*, “*iduzkiz jantzia da*” (Apok 12,1-3), *ots*, goiko *uddez joria*. “Emakumea *Utu edu da*, gizakia *edatzen=edere(l) du*”²² dino *sumeriar* jakinduriak, *Utu* arketipoaren *-tu/-du* atzizkia janzten du eskeintzape dagoenak: *naditu(s)*, *neskatto*, *lilitto*, *sinistu(s)*, *andretu*, *maritu(l)*, *donadu*, *kadishtu*, *xaxatu(s)*, etab. Egiptoko jainkosak ere *adar* arteko Ra=*iruzki=iduriko* borobilaz *dotoretu* agertzen dira. Emakumeak zeraman *tuturroak*, bere nortasuna eta egoera erakutsi ezeze, erraietako umea zain tzen zuen Ersugearen amarruetatik. (Apok 12,3-5)

Iyote/joteri=turruturaz joaldunek=joteriak=“kalejiran aurretik *jo/joaten* direnak”, eraman ohi zuten *tuturroa Sortade* Hurbileko ohikoaren antzekoa da (*Yobel(h) adari-adarra joten* zan Israelen *jubilaroz*), *joaileak*²³ *atorra tturiz* eta *joari ttiki* eta handiz *dotore doaz*, *joan*, *joaireak*, *ixipu=ishipum(a)=iship(s)* arautzaile-*txukuntzailea* aldean daramatela, Lege zaharreko apaizak bezala (Urt 28, 33-34).

Donienak deritse Ekainean ospatzen diran “*solsticio de Verano*”=*Udako* jai. Bezperan “*Donien suak ixiotzen* dira. Bertan *utuldu* nahi ziran, gaitzaren sinbolo diren, “*apoak eta sugeak*”. Ohar Apophis Ersugea. *Su/suga/suge* formak elkarren aurkako-

22 *La Enseñanza de Shuruppak* (258), DB. n° 26.

23 *Joaleak*, *ixipua* eta püntillazko *atorrak* eta *tunturroa* eramatea>apaizen eskubideko ziran. Babiloniako apaizek *joaileak* eramaten zituzten *debrua*k *uxatzeko*, edo jainkoei deitzeko. (“CAMPANILLA”, Dic.B., o.c., p. 261.

ak dira. Su beratan “artoak eta gariak=trigo” gordetzeko=tutare(l) kantuz otoizten zan. Sutearen keak etxea hartzea zorionerako omen zan. “Donienez iduzkia dantzan” aipatzen dute, iduzkiloreaz txukuntzen zan/da etxeko atea. Donien-dantzaz, Uztai-dantzaz-eta idduzkiaren garaipena ospatzen zan. Dantza-soinua tuba, tibia(l), ttuta, ttulubitu, txistuaz ematen. Gizarte ospakisunetan, ostera, tobera jotzen zan.

Iduzki Saindu, Done Santore: Aton(e)/Adonai(h), Done/Don=Jaon/Jaun. Jaun Done tituloak santuei egotzi-goitzenak dira. Jona(h)/Joane/Juan izena ere Adonai edukoa da. Donienez=Sanjuanetan, Juan, Kristo Iduzkiaren aurrelariaren jaiotza ospatzen da, mito zaharrak fede berrira erakarten, alegia. Done Santorez=Domu Santuruz<De omnium Sanctorum(l) santu duztien eguna ospatzen da. Jai honek, hala ere, eleizan baino arrakasta handiagoa du hilerrian, hobiak=tomba=túmulo Iduzki Sainduz txukundu agertzen ziren aldian, berere. Aton(e)=“iduzki dorua” zan hasieran, gero iduzki-doruan zegoen “jainko adorea”²⁵, Aton-Ra jainkoen batasuna, ots, Sumeriako eta Egiptoko kulturen batzea egiteraino Thutmosis IV garaian. Atonen salmoak dinonez, “Sortzaldetik itoitzen zarenean zure duintasunez dotore doitzen duzu... Sartaldean iduzkitzen zarenean lurra, hila bailitzan, ilunpe gelditzen da” eta bere Himnoak: “zu nere bihotzean zagoz”. Eta gure arteko otoitz batek: “gaur kontsola nozu, eguzki, bihar etorri zakidaz, kontsola naitean”²⁶. Iduzki Donearen iduzkiaren dorua antzezten dute toskan, zurean, hiltzak iduzki sortaldera begira zurtu, itxutu, iduzkitzen ziran Atonen duintasuna idoro ahal zezaten, Osiris jainkoagandiko anziz. Etxeak ere Iduzki aldera begira eraikitzen ziran, hemengo bizitokia=domu otsakiko tonban osteaz. Utu=Aton. “bizi sortzaile da gure artean. Deiak, (h)eitak, deithorak, uxingak Uteri egin-otoitzalakoak ziran.

Adu/adur, Idittu/Iditxu: adu=hado=zoria, adur, betadur=“be-

25 CORTEGGIANI, J.P., “ATON”, DR, o.c.,p. 147-148)

26 SORAZU, E., *Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*, o.c., p.185-188.

targiez tutulikatzeo indarra” eta *Iddituak*, laino gorri iduzkituen *izugarria*, *suzko zezenez*=“*toros de fuego*” plazan antzeztuak. *Uddua-ah(s)*=*idia* zan *Uturen adorea adierazten* zuen maskota, eta *Uturen itoi*=*ostuko zuloetan*, *Tutozulo bezalakoetan* zaindari zena. *Uturen atezainok izugarri* ematen ditu Gilgamesek, begituaz bakarrik bat hil-*zorian jar-adinekoak*²⁷.

Tartalo:Uturen atarteko=*atezain etoetarikoa* bide zan *Tartaro/Tartalo* begi bakar *izugarria* ere. Latinoek, bestalde, *Tartaro* ere deitzen zioten *Pluton*, *infernuko erregeari*.

Toka: Ttotozentzat ato da anaia nagusia, harekin *toka* jardungo du, *oto*=*tío* da, *atta/aitaren* anaiea eta *suin*, *tto*, *ttotto* ere bada arketipo-ereduz, *Aitoren* semeak, hain *zuzen*. An amatar antze=modelo den bezala, *Utu aitatiar edua* da; no eta *to*, beraz.

Udal/udaletxe “*casa solar*”, *utor*>*usu(l)*=*oitura*, *jus(l)*=*ttuten/zuzen juskatzea* (norbait *jus gabetzea*) egiturak ere antxinako gizarte erakunde *usmoak* dira.

Sugaar=Sugoi sorkariek *su/suga* bezala, aurkatzen dira egituraz, nahiz *tximist* eta beste *distirekin* berdintzen diren. *Tximistaren zirkun-zarkutik* hala deitzea ere baditeke, *Sugarzulo tokizena* ere ba dago Balzolan.

Otsein/otseme, jopu egiturok eta *osaba, ozaita* bat datoz, *ots/os-* arketipoan. *Otsein/sein, otseme/sem*e eta *jopu/jabe* aurrizkiz aurkatzen dira, *autx/etxe autxerdeara/eskera* egiturak bezala. *Ud/ux* forma zahar jainkotiarra eta *etxe/she* gizatar berria aurkatzen dira, senidetasun biak bereizteko.

Eten/eden: Bizia edenak eteten du, baina *edena*=*pozoina ezeze*, egortze erritua ere bada. *Etemna(s)* da, egortzi gabeko arimarratu eta *etemnu(s)*, berriz, *edenak* bezala, sabelean erasotzen duen eritasun-*deabrua=addarra* da.

Sorta/zorthe, zotz, sorginak: Ozolanean egindako *sortak*-eta *sorte/zorthe/sorte(l)*>*suerte/suberte* dator, *etorri*, hizkuntza

²⁷ Gilgames, IX, II, 6-7.

renbanatzeko zozkatu egiten ziran zorthea nori suertatuko, beraz arteziaz. *Sorteginak/sorginak* ezetziak ohi ziran (Ek 8,21).

Utukku(s)/Udug>tuku “zelo”, *tukuz* zelatatu=*tutare(l)* “jagole bat ezarri zuan, *udug* ongilea bere aoharen zelatari (...) jeinu begi ongile *tutoreak* eman zizkion”²⁸. *Utukku addar* gaizto ere bada.

5.3. Euskal etnografia RA arketipoaren arabera

Oronzaro: *Oronzaroz* antxina baten *Ra* jainkoaren (*h*)irugarren *ernaldiko* (*H*)orus (*h*)aurraren=*rorro*, *ertaroa*=*ortus(l)* ospatzen zan. *Horusek iruzki ori/orailaren=aureu(l)* jaiotza adierazten du “*Erkingu-ertzeko Horus=Horus del Horizonte*”²⁹. Eleizak Kristo Jainko Semearen Jaiotza ospatzeko *eredua* bertan egina ikusten du. Bestalde mitoen giza ametsak Kristogan betetzen direlakoa dago Eleizako Liturgian. Kristo da, beraz, askatasun “goiz eguzkia”. “*iO Oriens!*” deitzen dio jaiotzear den Kristori, beragan dakus ilunpetan dagozan herrien *argitzaile*. *Hori* delata, *Orontzaro* jaiaren egitura zaharra, aldeak alde, Kristori ere egotsi zezaioken.

Iruzki Saindua: “*O Iruzki Saindua*, eman zahuzu biziko eta hileko *argia*” dino J. M^a Satrustegik atsoen altxorretik Zudairen jasotako *erregu* batek³⁰. *Arratzaldean* (*h*)eriotzera doan *iruzkiaren erruki/urrikal* sentitzen da: “adios, *Iruzki gaxo*=*errukarri*. *Iruzki-eredua* herriak *orzargitik arratzera*, ots, jaiotzetik (*h*)eriotzera bizi zuen (*h*)erriak izadiko Jainko-sinboloekin.

Erio=(H)eriotz: Izen egitura hau *Eros(g)*, *eros(g)*, *eroi*, *erraldoi*, *ero*, *erogo*, *eroso*, *erori*, *eri*, *eroan*, *ortzi*, *eroiu*, *erosta*. *Iruski* Sainduak *erori* eta *ertua erosi* eta *arintu* egiten du *erio*, egunero bere zoriko egiten gaituela³¹, bera ere zenduen lurpeak

28 *El hombre y su dios*, 128-1129, DB n^a 26.

29 MALAISE, M., “HORUS”, DR., o. c., p. 768-769.

30 SATRÚSTEGUI, J.M^a; *Mitos y creencias*, o. c., p. 40-43.

31 MOTTE, A., “EROS (Grecia)”, DR., o. c., p. 544-54 5. Cf. Hortik ulergarriagoa da herriko esakera: “Requiescat in pace --Hemen sartu eta Burgosen *urten*”.

igaroz, egunero berbiztu bezala *ur̄teten* delako *orzargian*.

Hilobiaren buruan jarten diren (*h*)*arri* biribil, (*h*)*arrigizon* edo *irargia* iruzkiaren irudiak dira. Zendua, *harrizko irudian harritu*=liluratu, Osiris jainkoari gomendatzen zitzaion, haren *arteziak erosi zezan*. *Hortik* “zurtu” eta “*harritu*” esakerak. Nahiko zan *harrigizonari* kurutzea ezartea Osirisen *artezia* Kristoren graziaz truka ahal izan eta misteriozko *erresa* aldatzeko. *Raren* barkak *iragoan* (*h*)*arrapa* eta *aire*ra noiz *arintuko* itxaroten zan, “eta *horrela airean erasoak=harrapatuak=rapiemur*(*l*) izango gara”, Paulok (Tes 4, 17) Kristoren zoriko kristauen bizkundera aipatzen duen bezala. Mitoa beti *ere* aldian aldiko pentsamoldeari *erantzuteko* hizkuntza bizia eta fede eskola bai-da.

Hortu Santua: *Oru+tu*, *Horus=iruzkiak maite-orua* da, ots, baratz *horutua=iruzkitua>iruzkitsua*. *Horus* santua zenez, hilerriari “*Hortu santua*” deitzea (*h*)*ur* dago eta “*Iruzki Sainduaz=Done Santore*” sagaratzea bezala.

Ur goiena, ur barrena: *Urdiaingo Urteberriko Uraren erritua* da. Antxinatean eskatzen zena bera eskatzen du eresiak: “*Ur goiena, ur barrena/Urte* berri egun ona/Etxe honetan sar dedila/Pakearekin osasuna/*Urarekin* ondasuna”. *Erritua*ren bestelako ahozko *erregu-eresiak ere* ba dagoz, baina denak jarraitzen dute *aurreko erredua*: “*Ur goiena, ur barrena*”. *Ur* aipamen honetan hako (Has 1,7) goiko ta beheko *uren* banantze-goraintzia somatzea burubidezkoa da *hur*rean, baina Antxinako Sortalde *Hurbileko uraren erritoe*kin zubi egitea Thalamas Labandibar eta J. M^a Satrustegi ikerleen zuhurtzia izan da³¹. *Urte=uretza, urteera=urtea* hitzaren korapiloak berak *ere, urte* edo *uraldi* berriak egiten

31 SATRÚSTEGUI, J.M^a, *Mitos y creencias*, o. c, p. 40-43. Cf. THALAMAS LABANDIBAR, J., *Notas sobre cosmología vasca*, Bol. RSVAP, 1977, p. 76. Cf. *Ur* barrenen artean Hubur dago. “Ama Hubur” deitzen zaio Tiamati. (*Enuma Elish*, II, 19). Cf. *uber=burar*. Eleizak ez zuan ikusi, agian, paganokeriarik *errito* honetan Biblia (Has 1,6-7; Prov 3,19-20) berak eta kosmogonia hau, orduko kulturak emana bezala, onartu egiten duelako. Altzatzun “*Uronako Andre Mari*” ere ospatzen da.

dute *Urte Berria*, eta hagatik, *Urte Berria* jorituko duten *ur* berriak eskatzen dira, *ur* zaharrak *urtikiz*.

Errensuge/Ersuge: Nola deitu zezakion bestela *Ra* eroiaren sugeari, *Ra* jainkoak *arteziaz* egunero gainditzen zuen Apophis apotzarrari? *Erensugea* eta *Irainsubia* ere deitzen da. *Raren* genitiboak biak *ere*, *irain* edukinaren *arabera*. Apophisek *argintxioz* eta *arratzean arriskuan=riesgo* jartzen zuen *Raren* untzia³², berarekin batera izadiko *eredua=orden irauli-irrikaz*. Joanen Apokalipsiak *irudi* hau darabil jaiotzear dagoen *Erregearen aurka* jarki nahi duen *Ersugea* salatzean (Apok 7).

Aralarreko Mikel Enangerua=Arcángel Jainko-herriaren jagole dager profetarengan (Dan,7). Mikelek *Aralarreko* bakardadean Teodosio jauna *eraso* nahi duen lurpeko *Ersugea* azpiratzen du. Ez du, halare ezpataz *erasoten*, kurutzearen *eraginaz* baino, mito zaharra, kondaira berriaz, ain egoki *ere*, kristautzen delarik.

Ara/birao, erregu/erresuak: Egipton otoitzak=*oratione(l)* *arteziaz* *ere* laguntzen ziran. *Araoak* on egitekoak ziran, *biraoak*, madarikatzeko. "Gauza bat da *erregua* eta bestea *erresua*" esan ohi da. *Eregua* jainkoa txarmatzeko eta *artez=arteziaz*, beraz *erregua arin artetsi* ahal izateko da. *Hortarako* horoskopopak eta *irradakoak*, *errondak*, *rondó* biribilketak eta kalejirak zerbait eta norbaiten biran=*rededor haren amore=eros erosi, ardieste-ko*. *Irradakoak* *Ra* iruskiaren birak antzetzen ditu. Hagatik Osiris jainkoak *ere* inpernuko etsaigoaren *ardaila* bere *ardatzean* lotzen zuan, *Ra* iruzkiari *erasorik* egin ez zezaion. (Ikus 3^a. irudian). *Arriskutsua* zan, behin *arratzeraz* gero, etxeari *hiru bira* ematea, deabruren batek (*h*)*arrapa* zezaken halakoa ezustean.

32 GUILLEMETTE, A., "APOPHIS", DR., o. c., p. 112. Cf. Nut amak *Ra*, egunero *erditu* eta *irunzte*-uneak uztiatzen ditu *Errensugeak haren untzia erasotzeko*. (PFEISTER, P., NUT, *Ibidem*, p. 1293-1294). *Erditzeko harriskuak* ba dute Ainamendi inguruko *Erditse* (SORAZU, E. *Antropología y Religión en el País Vasco*, op., c., p. 90) jainkosakin zerikusirik eta baita *ere* Bizkaiko "Erdotzako Andre Mari" bi santutegiekin

Arbola=arbore(l) eta euretan *arte*, *aretz=roble*, *arce* eta hebraierazko *erez*, *armon*, *araba*, etab. jakinduriaren ezaugarri dira (Gen 2,9,17), zuhaitzak *eroriarren ere*, *errotik* kimu ber-riak sortzeko eta bizirik *irauteko* ahalmena duelako (Job 14,7), herri-nortasun eta *iraupenaren* kerizpea duelako. Egiptoko herrian *uri/iri* bakoitzak bere *arbola* sakratua zeukan. Israelek *ere*, herri-batzarrrak *arbola* pean egin zituan eta han *erabagiak har-tzen* (Ep 4,5), Mambreko *artearen* azpian Yahwek Abrahani “zure jatorriari emango diot lur hau” (Has 12,6) agindu zion. *Artzeniegako Artea*, edo Gernikako *Aretxa* beste (*h*)*aritz* edo *arte* askoren *eredu* dira Euskal Herrian. Herria batzartu, *araudia* eman, (*h*)*errigintza* antolatzeko *ardura* eta egitura Sorkalde *Hurbiletik* etorri zaigu nonbait Euskal Herrira ere. “*Arbola Santua*” deitzeak eta inoiz kurutzatu agertzeak ere (*h*)*erriarenganako* Jainkoaren betidani-ko *arreta* eta Hagazko *erabagia* adierazten du.

5.4. Euskal etnografia ILU arketipoaren arabera

Jainko arketipoetan azkenenaren oihartzuna argiago heldu zan guganaino, gaurdaino gorde ahal izan dugun, *Olentzaroren* piurari eta mezu-kantuari ezker. Baina gure irudimeneko piura ez-baikor horren ostean milaka askotako oroitzak gordetzen du euskarak. Mito hori harrigarria da hasieratik *heldueraraino*. Mitoak bere buru-bidean Kristoren agerpena aitatzen du aurretiaz.

Olentzaro=Nöel: Gainerako jainko arketipoak bezala *Iluk* ere bere aldia agertzen du. *Elohim(h)*=“jainkoen jainko”, gehientasuneko ZEIN/ZEREN kasoan dager Israelen, *olim(l)*=*lehen* ere bateratsu datoz antxinasuna adierazten. *Legezkoa* zan, *alegia*, hasierako *aldiak lau* jainko-*leinu alaenekin elekatzea=legere(l)*. Eta “*aldiak heldu zirenean...*”(Gal 4,4) jainkoen *laugarren laiako Olentzaro/Olentzero heldu* zaigu Jesusen Jaiotzaz *lokarria* egitera. “Aditu duanian, Jesus jaio dela...” *Ole! Iluri* egindako behingozko *olesa ezeze*, otoia da, (*h*)*el! Iole!* haren Seme giza-tuari *oleriak* edo *leloak* eta *noelak* abesteko *aldia* bai-zan.

Nöel(f) formak Anu+El jainko eredu biak baten hartzen ditu, *Noelak* deritse “Gabon kantei”. Emmanuel(h)/Manuel “Jainkoa hemen” deiturak ere bide beretik datoz, igarleak antxinakoen arketipoez deitzen bai-dio etortzeko zenari (Is 7,14.8,8).

Lotazil ere deitu izan zaio Egunberriari “Abendu” formaz kristautuaz landa. *Lotazilean* ospatzen bai-zan, hain zuzen, Horus aurraren jaiotza, *loto lorearen* ziletik³³ harrigarriro bezain *lilura-garriro* jaioa. *Lotoak* urpekoa du ama-ahiena eta ur gainekoa *lorea*, ahienetik *lorera*, zila bezalako *lokarriak* lotzen duela. Ur barrenak amatar urak dira, noski. *Lotoa latx* eta *laku lingirdatsuetan* ematen da, *Iluri lotu-lekuetan*, *alegia*. *Lilutu(s)* ezeze, *liluratu* dager Horusen jaiotza eta *Lotazil lilurapen* hatako beste *ele=logos(g) lekutua* da. Irudi bezala, ez dago, bestalde, Isaiasen hako “Jeseren muskila *loretuko* da” (Is 11,1) igarpenetik urrun.

Laratz=llar=lares(l), *Larunbata*: *Laratzak* beheko sua hesten eta babesten du. Hatarako erritoan, etxekandreak *laratza* jotzen du, sua autsaz estaltzeko darabilen palaz³⁴. *Laratzean elorria* ipinten zan kebidea *laminen liluratik* edo *ilungien* erasotik *lar-gatzeko=librar*. Erromatarrak azkenean *legeztatu* egin zuten *Laratz* jainkoenganako=“*dii lares*” *lehia*, errepublikan *legetik* kanpo utzi zutenarren³⁵. Herria *linburtzearren*, enperioak erlijio herrikoiak ere onartu egin zituan. Jainkook bere eguna izan zuten *Larunbatean*, ots, *Larium(l)+baitan*, Yahwek Sabbathu(a)/Sabbat(h) eguna duen bezala. “*Larium* baita”=“*Laratz*en baita”=bet(u), *hala* nola “Bet’El” baserriko temploa adierazteko. *Laratzak* zenbat eta jainko *ele* gehiago oratzen zuan, orduan eta *ahal larriagoa* zeukan. *Laratzak* auzian *lekuko* ziran: “*laratzak* eza-gutuko nor nolakoa den”, “*laratza* bezain segur”, “por estos *lares*” esakerek dinoen bezala.

33 MALAISE, M., “HORUS”, DR., o., c., p. 768-769. Cf. *ilutu, loto=Iluz liluratu-lorea. Lotoa* Nilo *latxean* ugari emoten zan”

34 SATRÚSTEGUI, J., M^a., *Mitos y creencias*, p. 92-94.

35 MESLIN, M. “LARES”, DR, o.c.,p. 980

Lamina=lamia: *Iluren latx, laku eta lezeetan ilalamiak/ilamiak/lamiak* egoten ei ziran, erdi neska, erdi arrain ziren sorkariak, tokizen askok zihurtatzen dutenez: *Laminoria, Lamiako, Laimizulo, Lamindano*, etab. Josketan eta egiteko *alkartzen* omen ziran eta gaztelu, zubi eta beste ardurazko eraikintzan gizakiei *laguntzen* omen zien. *Lajamu* eta *Lama-su(a)* ziran sortu zen *lehen* izakien bikotea. Euren zeregina, tenploak eta jauregiak zaintzea. *Lamma(s)*, aingeru zaindariak ziran eta *lamashtu(s)*, jeinu eme gaizkileek erdiberri eta jaioberriei erasoten zietenak³⁶.

Iletargi/ilargi=luna: Batzuren ustez, *iletargia* mendarteetan sartzen omen da, eguzkia=*elios(g)* ez bezala. *Iletargiak* bera gutxietsi zuen gizon bat baitu omen dauka, gizonak ote-sorta daroa bizkarrean. *Ilargi* amandrea, Nana(s) eta Sin(a) bezala jainkosa denez, andreen eskubide *alde* dagoke. Beste jainko nausiek zerrua eta eguzkia dauzkate euren arpegizat. *Iluk, aldiz, iletargiaren=luna* arpegi *aldakor* eta *liluragarria* hartzen du beretzat.

Iletargi egiturak *ileko* argia dino, ez *hiletakoa*. Nahiz erio/heriotz eredia zaharragoa izan, *il/hil/hilotz/hileta* nagusitu dira.

(H)labehar: "morir, touer(f), erio, (h)il" jainko arketipoez esanak dira, nahiz gizakiez esan. Aberee-piztien azkenaz "galdu, akabatu, kali" Ka giza eredia eredia erabilten da, gizakien haien biziaren gain eskubidea baileukan. Nor da adu=(h)*alabeharren* errudun? En*lil* jainkoa dager aduen arduradun.

Ahu, aul/ahul: "alû deabruak soinekoz bezala jantzi dik gorputza (...) *ahulezia lisatu* zait belauentara"³⁷. Gaizo mota honek ere nonbaiteko jatorria izan behar zuan.

Lukur: zerbaiten prestakizunaz dirua *lortzen* zutenei, nonbait ironiaz deitua, *lukurreri=lucru(l)* bera egiten bai-zuten *lukur(s)=lilitxoak* tenploan, euren prestakizunaz.

36 *Enuma elihš*, I,10 (N:del T.) Cf. LIMET, H., "DEMONIOLOGÍA (religión sumeria y acadia)", DR.,o.c.,p. 416-1417)

37 *Ludlul bel nemeqy*, II, 71-80, DB, n^o 26-

5.5. Euskal etnografia KA arketipoaren arabera

